



**Lourdes oñederra.
begiz jotako ipuinak**

euskararen erabilera & motibazioa
nafarroa 1936
mexiko

geurekin mendira

gerardo markuleta • patxi zubizarreta • iñaki petxarroman

M
Bhi



ELKARREKIN AURRERA

Geure izate kulturala
ezagutuz eta onartuz,
mundua ezagutzeko
eta hobe egiteko
dihardugu lanean.



DBH-ESO

BATXILERGOA

945179622

010329aa@hezkuntza.net



tokieder ikastola
GASTEIZ

Tokieder Ikastola

D eredua

Kalitatezko hezkuntza euskaldun eta integrala

Jantokia, ingelera 4
urtetik aurrera,
ekintza osagarriak,
informatika gela,
sikomotrizitatea,
guraso eskola

2004-2005 ikasturterako
izen-ematea otsailean

Wellingtongo Dukearen kalea 6,
Lakua 01010 Gasteiz
Telef/faxa: 945 171 210
tokieder@euskalnet.net



8-12. orr.

gaika:
EUSKARAREN erabilera & motibazioa
 Koldo Ortiz de Ginea

Navarra 1936. *De la esperanza al terror*, Mari Jose Ruiz Vilas
 egilekideak azalduta

13-15. orr.



16. orr.

ahorik aho:
euskaltasunean lagun:
 eukene durana



17. orr.

GERARDO MARKULETA:
 "Batak ez du bestea kentzen"

20. orr.

PATXI ZUBIZARRETA:
 "Lekuko deserosoak"



21-22. orr.

Los Herran Institutua,
euskarari so,
 25. urtemugarekin batera

18-19. orr.

GAINERA...

- **Han-hemenka** (4-7. orr):
- **iritzian:** PERI kitto! / denon eskola / kontseilua
- **kaleak dio:** euskara ikasi, erabili
- **araba bixotzian :** JON ZUBIAUR
- **KULTURAI SIALDIARI SO** (23-34. orr):
- **agenda** (23-24)
- **idazleen gupila :** depende. laburpenak (25)
- **historia zertzeladak - IÑAKI PETXARROMAN:** 'Nafarroa. Katearen begiak' (26-27)
- **arte txokoa:** KATIXA AGIRRE (28-29)
- **bidai:** MEXIKO. Xabier Errasti (30)
- **erezeta / BERTAKOARI SO!, ERLANTZ URTASUN** historiagilearen txokoa (31)
- **geu-ren gunea:** eu elkarte & eskaintza. GEUREKIN MENDIRA EKIMENA (33-34)
- **komikia (iñigo sarasola)** (35)

Azala ...



LOURDES OÑEDERRA.
"BEGIZ JOTAKO IPUINAK"

"Oso kuriooa izan zen nola, argazkia hautatu ahala, ipuinaren puskak etorri zitzaizkidan gogora. Gero, memento latz pare bat izan nituen, baina ordenagailuko pantailan egunero ikusten nuen argazkia eta berak kontatu zion istorioa nire subkontzientean (edo alderantziz agian; argazkiari begira jarrita, nire barrena istorioa kontatzen hasten zitzaion)"

> GEU GEU Elkarteen ekimenez sortua (1992)
 Geu aldizkari taldeak egina, bideratua eta kudeatua
 Erredakzioa: Pedro Asua, 2-3.a. - 01008 Gasteiz
 Tfnoa. eta Faxa: 945 22 21 53 • e-mail: geugaste@gm.es

Zuzendaria: estibx breñas giz. de zarate
Aldizkari batzordea: josune velez de mendizabal, edorta sanz, edume begiristain, estibx breñas eta david alvez
Kazetariak: edume begiristain, josune velez de mendizabal, saloa fdz. de arangiz
Argazkiak: edorta sanz
Bestelako irudiak-bilaketa: estibx breñas giz. de zarate
Testuen zuzenketa-orraketa-osaketak: estibx breñas giz. de zarate
Itzulpenak: edume begiristain, estibx breñas, aztiri
Maketa: patirke sanz eta david alvez
logoa: io grafix
komikia: iñigo sarasola
Kolaboratzaileak ale honetan: PERI kitto!, denon eskola, kontseilua, maite lekue, jon zubiaur, koldo ortiz de ginea, iñaki zorrakin, xabier errasti, erlantz urtasun, maite mendiburu eta diocenasan-mendizorrotzako oñalaritza eskola.
Publizitatea eta Banaketa: edume begiristain
Publizitate arloko laguntzailea: maite lekue
Sustapen-harpidetza saila: edume begiristain, estibx breñas giz. de zarate
Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati)
Ale kopurua: 2.500
LG: VI-582/92 - ISSN: 1133-0988

Frankeo Itundua 48/27 zenb. Aldizkari hau paper berziklatuaz egina dago. Geu aldizkariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzukizunik.

Laguntzaileak:



**PERI
KITTO!!**

PERI KITTO!

Ezagutzen duzu PERI egitasmoa (Alde Zaharra birgaitzeko egitasmo berezia)?

Berriz ere, hemen ditugu udal agintari buru argikusleak (PP). Oraingo honetan inoiz bete ez zen egitasmo zahar bat berri eta ekimen pribatuak dituen ezkutuko interes ekonomiko eta politikoei laguntza emateko, auzokideen oinarritzko beharrak alde batera utzita. Horrek guztiak ondorio ezin okerragoak izango ditu auzokide eta bertan ibiltzen direnentzat.

Ondoko hauek dira PERI egitasmoaren nondik norakoak:

1.- Alde Zaharra erakusleihen bihurtu, kontsumorako gune; horretarako "Saltoki Egokiak", turismoa eta zerbitzuen sektorea bultzatu nahi dituzte, gune hau berrantolatuz ekimen pribatuarentzat erakargarri izateko. Beraz, Alde Zaharreko "jendilajea" eta bertako kultura "garbitu" behar dituzte bai eraikuntzei, bai bertako gizarteari dagokionean.

2.- Pobre edo dirurik gabetzat eta politika arloan baztergarritzat dauzkaten pertsonak bertatik bota eta helburu "garbiko" merkatariz eta goi mailako maizterrez bete auzoa.

3.- "Garapen ekonomikoa" bultzatu, auzoak gizarte arlo askotan dituen behar eta arazoak (oinarritzko zerbitzuak, etxebizitzaren zaharberritzea, hirugarren adinekoentzako zentroak, aisialdirako guneak, gizarte-laguntzen murrizketa, etorkinak...) alde batera utzita.

4.- Autogestionatutako edozein kultur egitasmo (Gaztetxea) suntsitu, kultur ekintzen etekin ekonomikoa baino ez bilatuz.

5.- Alde Zaharraren "zaharberritzean" ekimen pribatua bultzatu, Udalarekin eta beste espekulatzailer publiko eta pribatu batzuekin batera. Horretarako haiek nahi duten moduan eta era ezkutuan aldatzen dituzte legeak, dituzten helburuak bete ahal izateko, beti ere, "gazta goxo" honen zatirik handienak nahi dituztenen onerako.

Alde Zaharra beti izan da leku berezia: abegikorra, kultura anizduna, bizitzeko eta aisialdirako tokia, konspiraziorako eta autogestiorako lekua... Bertan mota askotako joerak

eta ideologiak bizi dira. Halaber, hainbat gizarte taldek eta konpromisodun pertsona askok bertan euren egoitza dute eta egiten duten lanak ez du inondik inora bat egiten PPK bere PERI egitasmoan garatu nahi duen asmo bateragarri eta espekulatzailerekin.

Gure Alde Zaharra "baztergarriok" lekua izango ez dugun erakusleihen bihurtu nahi dute. Horrela, higiezin espekulatzailer, desjabetzeek, Mc Donald's-ek, merkataritza guneek, orduz berezietan politika duten frankiziek, maila handiko kafetegiek, behatoki-dorreek, banketxeek eta abarreko egungo Alde Zaharraren izaera ordezkatzeko dute eta bertatik botako dituzte bertan bizi eta ibiltzen direnak.

Eta PERIrekin batera beste proiektu osagarri bat dago, Gasteiz On inguruan elkartutako Erdi Aroko denda eta zerbitzuen Federazioak diseinatua, PERECA izenekoa (Plan Especial de Reactivación Económica del Casco Antiguo).

PERECAren helburuen artean, "esparru komertzialaren diseinu eta definizioa" dago, zeinean Alde Zaharra bilakatu nahi duten. Beste gozokeria batzuen artean "...bertan zer falta den eta zer dagoen soberan zehaztu beharra daukagu, ondoren berpizte ekonomikorako lagungarriak izango diren ekimenak sustatzeko"... bezalako asmo hain bateragarri eta anitzak dakuskigu.

Eta ez dugu bizitza bera probetxu propio bihurtzen duten lagun horientzat bertako berpizte ekonomikorako "zer dagoen soberan" galdetu behar. Helburu horiek lortzeko PERECAren baitan dauden estrategiak honako ildoetan oinarritzen dira: a) Hirigintza-eraldatzeak bultzatu, b) Lokalen higiezin-sustatzea, c) Eskaintza komertziala eta zerbitzuen araberako kale antolaketa, d) Promozio turistikoa, kulturala eta komertziala, beste tresna batzuen artean, Gaztetxearen desagerpena ekarriko lukeen Bosgarren Dorrearen eraikitzea dagoelarik.

PERI kitto!-k dei egin nahi die auzokideei, gizarte taldeei, Alde Zaharrean ibiltzen direnei eta gasteiztarrei, horri guztiari aurre egitera; hau da, ezin dugu onartu hainbeste desoreka eta autoritarismo bultzatzen duten bizimodua eta eredu ekonomiko, sozial, kultural eta politiko neoliberalak ezartzea.



DENON ESKOLAren jardueraz

Denon Eskola Arabako Eskola Publikoko Ikasleen Guraso Elkarte (IGE) gehienak batzen dituen Federazioa da, 1997an sortutakoa, eta euskal hezkuntza eredu publiko transformadore, kreatzaile, euskalduntzearen aldeko, integratzaile eta laiko baten alde proposamen eta aldarrikapenen bidez lan egiten du, ahaleginak bateratuz, eskola esparruan familien parte hartzea bultzatu eta erraztuz eta instituzio eta gizartearen aurrean solaskide legez arituz.

Gaur egun Arabako 65 ikastetxek parte hartzen du Federazioan, haur eta lehen hezkuntzakoak zein bigarren hezkuntzakoak.

Hiru dira lan ildo nagusiak:

- Solaskidetza eta aldarrikapena gizartearen aurrean baina batez ere Administrazio Publikoaren aurrean, inguruneko gizartearen eskariei erantzun emango dien kalitate handiagoko eskola publikoa lortzeko.
- Zerbitzuak eskaini Federazioko IGE ezberdinei: informazioan, aholkularitza eta formazioa.
- Konpartitutako Proiektuak. Gaur egun ugari dira martxan diren proiektuak:

- Hizkuntzaren normalkuntzarako batzordea: helburu nagusia euskara ikastetxearen esparrutik gizartera ateratzea da.

Urtero hainbat ikastetxetan Denon Astea ospatzen da zenbait kultur ekitaldi eta ekintza ludikoekin umeak Euskal Herriaren berezko kultur adierazpenetara hurbiltzen saiatuz. Aurten otsailaren 16tik 27ra bitartean ospatuko da.

- Eskola Kirol Batzordea. Eskola Kirola gure seme-alabentzako osagarri hezitzaile garrantzitsutzat hartzen dugu eta gainera osasunaren aldetik ohitura oso ona. Kirola denontzat aldarrikatzen dugu, ez gaitasun handiena erakusten dutenentzat.

- Liburtxo batzordea. Ikastetxeetako testuliburuaren birziklatzea bilatzen duen kanpian dugu hau.

Liburu hauek gutxi batzuentzat oso negozio emankorra dira Administrazio Publikoaren onarpenarekin. Ez da arazo ekonomikoa soilik, oinarri hezitzailea ere badu.

- Denona buletina. IGE eta familientzat informazioa eskaintzen du: Federazioaren gestioa, esperientzia interesgarriak, hezkuntzaren munduko eztabaidak,... azaltzen ditu.

Gainera, Vitoria-Gasteizko Udaleko Hezkuntza Sailarekin elkarlanean, Denon Eskola-k gizarte osoarentzat zabaltzen du Hezkuntzari Buruzko Informazio Bulegoa. Bertan informazioa eta aholkularitza eskaintzen dira: egungo hezkuntza sistema, Araban dauden ikastetxeak, hezkuntzako araudia,... Zerbitzu hau zabalik dago astelehenetik ostiralera goizeko 10etatik 14etara eta astelehenetik ostegunera arratsaldeko 16etatik 20etara.

Bulego honetara personalki joan daiteke, Federazioaren egoitzan dago, Florida kalea, 62-A helbidean, edo telefonoz egin daiteke (945 27 31 40), eta horrez gain, posta elektronikoz denon-informacion@ehige.org helbidearen bidez. Ikasturte honetan zehar Federazioaren web gunea martxan jarriko da, eta bertan Hezkuntzari Buruzko Informazio Bulegoak ere bere tokia izango du.

Denon Eskola EHIGE-ren (Euskal Herriko Ikasleen Guraso Elkarte) barruan dago, BIGE (Bizkaia), BAIKARA (Gipuzkoa), Ikas-bi (Iparralde), Sortzen Gurasoak (Nafarroa) eta Eskola Txikiekin batera. Hauekin hainbat proiektu batera eramaten dira. Gainera urtero Euskal Eskola Publikoaren Jaia antolatzen dugu; aurtengoa ekainaren 6an ospatuko da Bilbon.

Denon Eskola-k alde batetik finantzaketa propioa du, IGE-en kuoten bidez lortzen dena eta bestalde, laguntza publikoak jasotzen ditu Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila, Vitoria-Gasteizko Udaleko Hezkuntza Saila, Vital Kutxako Gizarte Ekintza eta Arabako Foru Aldunditik.

denon eskola

GASTEIZEN EKINTZA PLANA ABIAN DA



Euskalgintzak aspaldi ikusi zuen Ekintza Plana sortzearen beharra, 1.998an AEKren kontra egin zutenetik. Orduetik hona, etengabe izugarritzko egurra jasotzen ari da euskalgintza alde guztietatik.

Aurrerantzean ere aurreikusten da ez direla gauzak asko samurtuko bazterretan.

Sarritan kolpe horien ondorioak ez ditugu ikusi ere egiten, hasierako sustoak pasa ondoren, baina hortxe irauten dute, epaiketak, isunak, beldurrak...

Eta honek guztiak euskararen normalizazioan ematen diren pausoak frenatu egiten ditu.

Azken aldian gertatutako eraso larriei jendeak gogor erantzun die, baina noiz arte horrela?

Zenbat manifestaldi antolatu beharko dugu euskararen normalizazioari ematen zaizkion kolpeei erantzuteko?

Euskalgintzak argi dauka bere lanean aurrera egingo duela, behar beharrezkoa delako euskara normalizatuko bada.

Era berean, euskalgintzak argi ikusten du badela garaia aurrera egiteko eta oraingo honetan Ekintza plana martxan jarriko du, euskal jendartea, uholdearen aurrean babestuago egon dadin eta ez itozteko zeri heldu izan dezan.

Ekintza Plana ez da kanpaina bat, lan ildo iraunkor bat baizik.

Aurrera begira beste giro bat lortzera jotzea da helburua.

Ekintza Plana bat da, baina ez da bakarra.

Hiru zutabe nagusi ditu:

- 1.-Alde batetik, AKORDIO SOZIO-POLITIKOA dago. Alderdi politiko eta sindikatuekin lortuko den akordioa da berau, jadanik euskararen normalizaziorako beharrezkoak diren neurriak euren eskuetan dituzte eta denek bat egin dute euskalgintzak azaldutako diagnosiarekin. Hilabete honetatik aurrera neurri zehatzen inguruan proposamenak egitea izango da lana.
- 2.-Bigarren zutabe nagusia, GIZARTE ERAGILEEI dagokiena da. Bai Euskarari Ziurtagiriaren bidez, jadanik lantzen ari dena. Gizarte eragileei ikusarazi behar zaie beharrezkoa dela konpromisoak hartzea.

Dagoeneko ia 700 gizarte eragilek hartu dituzte konpromisoak bide honetan eta kopurua goranzko bidea hartzen ari da.

3.-Hirugarren hanka: NORBANAKOEN KONPROMISOA da.

Herritarrei mezu zuzenak helaraztea. Herritarrek ere euren konpromisoak hartzea.

Hiru zutabe hauek lotzeko bi mezu nagusi erabiliko dira, batetik, KONPROMISOA eta bestetik HIZKUNTZA ESKUBIDEAK. Norbanakoen konpromisoa, gizarte eragileena eta alderdi eta sindikatuena. Eta bigarren ideari dagokionez, egunero, uneoro, leku guztietan urratzen direlako euskaldunon hizkuntza eskubideak, jaiotzatik dagozkigunak.

Ekintza Planean aurtengo urteari dagokionez, San Mamesen ekainaren hasieran izango da honen guztiaren eskenaratzea eta denok bertan egon behar dugu.

Ordura arte baina, badugu lanik. Badago zereginik gure hirian. Zuen gogoa eta ilusioa behar ditu euskarak normalizatzeko eta oraingo honetan parada ezin hobea daukazu aurrean honi ekiteko.

Hortaz, laster batean, otsailaren 12an hain zuzen ere, gasteiztarrok izango duzue honetan guztian parte hartzeko aukera eta ez utzi pasatzen, guztiok, zuk eta nik, joan behar dugu lanera, alferrik izango baita hurrengoan ere negar egitea.

Egunkaria itxi zutenean jende askok galdetu zuen "Eta zer egin dezakegu?!" Bada, oraintxe daukagu aukera paregabea, euskararen normalizazioan aurrerapausoak indartzen hasteko eta den denok gonbidatuta zaudete, bakoitzak ahal duena ematera egitasmo honetan.

Beraz, irakurle badakizu, **adi egon eta zatoz Gasteizen egingo den Ekintza Planaren aurkezpen ekitaldira datorren otsailaren 12an iluntzeko 8etan, Dato kaleko Euskadiko Kutzaren aretoan.**

Bertan elkar ikusiko dugulakoan.

kontseilua

Eustat-ek iazko uztailean argitaratu zuen, 2001eko datuez baliatuz, euskararen ezagutzaren inguruko ikerketa. Bertan jasotako datuek Gasteizen eta Araban euskararen ezagutza mailak azken urteetan gora egin duela adierazten zuten. Euskal eredueta jasotako matrikulazio kopurua ere urtero goratzen da. Euskararen erabilerari dagokionez, zer gertatzen da orduan?

Euskaraz aritzeko esparruak beharrezkoak direla jakina da, baina ezinbestekoa dugu hizkuntza batek bizirik iraiteko ahaleginik oinarritzakoa eragitea, mintzatzea alegia. Gasteizko hiritarrek euskararen egoeraren inguruan zer uste duten jakiteko kalera atera gara haien iritziak jasotzeko asmoz. Hementxe dugu jasotakoa:



Miren Lopez de Arregi, ikaslea

1. Ez dakit zer esan. Unibertsitatean ikasten nengoenen, gehiago entzuten nuen. Kaletik aldiz, mugitzen zaren giroaren arabera euskara gehiago edo gutxiago entzun dezakezu.

2. Bai, lanerako beharrezkoa delako agian.

3. Norekin nabilenaren arabera euskaraz

mintzatzen naiz edo ez. Lagunekin normalean bai.

Marisol Martinez, Udaleko langilea

1. Unibertsitatean entzuten dut gehienbat, lanean aldiz ezer gutxi, ezta kalean ere.

2. Bai, batez ere lanean aritzeko.

3. Lanean erabiltzen dut baina ikasketetan ez, gazteleraz ikasten dudalako eta gelakide euskaldunak gutxiengoa garelako.



EUSKARAREN ERABILERA

1.- Zure ustez gero eta euskara gehiago entzuten da Gasteizen edo ez?

2.- Gero eta jende gehiago ari al da euskara ikasten?

3.- Erabiltzen al duzu? Ikasteko asmorik bai?



Ainara Martinez de Marigorta, ikaslea

1. Bai, nire ustetan gero eta hiztun euskaldun gehiago dago Gasteizen. Batez ere umeen artean.

2. Gero eta jende gehiago dago euskara ikasten.

3. Ni euskara ikaslea naiz memento hauetan eta euskaraz zuzentzen zaidan edonori euskaraz

erantzuteko ahalegina egiten dut. Horrela pazientzia eskatzen diot nire euskara traketsa entzuten duenari euskaraz jarraitzeko eskatuz.

Roberto Calleja, irakaslea



1. Gero eta euskara gehiago entzuten da. Badaude hirian gero eta leku gehiago euskara mintzatzen dutenak, bankuak zein dendak kasu. Alderantzikoa ere, sarri ematen da.

2. Bai, Euskal Herrian bizitzeko beharrezkoa delako. B eta D eredu gero eta hedatuagoa dago eta A eredu ikasleen euskara maila kaxkarra da.

3. Nik ahal dudan guztietan euskaraz egiten dut; lagunekin aldiz, gehienetan euskaraz.

Araba bixotzian

Jon Zubiaur



EUSKARA ERABILTZEKO BARNEKO MOTIBAZIOA ETA SUBJEKTIBITATEA

Koldo ORTIZ DE GINEA



JAKINA DA EUSKAL GIZARTEAREN GEHIENGOAK EUSKARA BERRESKURATU NAHI DUELA, GIZARTE HONEN KOMUNIKAZIORAKO TRESNA BIHURTUZ. HORRETARAKO HAMAHA AHALEGIN BURUTU DIRA; IKASTOLEN, EUSKALTEGI ETA HAINBAT ELKARTE, TALDE ETA MUGIMENDUREN LANA, DA, BESTEAK BESTE, HORREN ADIBIDE. HALA ERE, ERABILERAREN EMAITZAK EZ DIRA ESPERO ZITEZKEENAK, ERAKUNDE OFIZIALETATIK KONTRAKOA ADIERAZTEN DIGUTEN ARREN.

Euskararen erabilerak urria izaten jarraitzen du euskaldunen artean. Hau, ordea, soziolinguistikari dagozkion arrazoi estrukturalen bidez justifikatu nahi da. Hori horrela izanik, inguruneak zein giro erdaldunak hizkuntzaren erabilera baldintzatzen duñe. Berreskurapenari eta hizkuntzaren erabilerari buruz dauden teoria ezberdinak baliagarriak izan daitezke hizkuntzaren egitura azalekoak aztertzeke zein emaitzak estatistikoki behatzeko, baina ez dute balio egitura sakonen, mekanismoen eta barne-gatazken kasuan, azken horiek kanpoko adierazpen ebaluagarri, neurgarri eta egiaztagarrien jatorrian eta oinarrian badaude ere. Subjektua, subjektibitate normalizatu baten barruan aztertzen da, non sentimenduak linealak izaten diren eta inoiz ez kontrajarriak. Sentimenduak era hotz, normal batean aztertzen dira. Subjektibitatearen ondorioak dituzten sentimendu horiek ez dira gatazka linguistiko baten egoeratik begiratura aztertzen. Ondorio horiek dakartzaten sentimendu epel edo grinak jarduteko eta pentsatzeko jatorriak dira eta, beraz, honek guztiak subjektibitate berr bat sortzen du.

Ezaguna da Euskal Herrian euskara eta gaztelaniaren arteko oposizio linguistikoa dagoela eta hau pertsonen barnean islatzen da nahitanahiez. Hemendik dator, euskararen berreskurapen-prozesuan sartuta dauden pertsonen subjektibitatea ulertu beharra. Hurrengo hau adierazi nahi dugu: nola bizi, sentitu eta ulertu gaztelania eta euskararen arteko harremana euskararen ikaskuntza-prosezuan; nola adierazten den euskara ikasten ari diren pertsonengan euskara eta gaztelaniaren arteko tentsioa; nola gaztelania versus euskararen sinbolikoa ideal linguistiko eta sozialen bidez agertzen den beraien imaginarioetan, etab. Bada egoera bat bere buruari galdetu eta erantzuten diona, emaitzen itxurazko ebidentziaz abiatuta. Egoeraren alfa eta gamma bihurtutako emaitza horien ondorioak ezagunak dira, baina ezagutu gabeak dira posible egin dituzten barneko dramak.

IMAJINARIOA, SINBOLIKOA ETA ERREALA

Imajinarioa (gauzek diruditena), sinbolikoa (analisi estatistikoei esaten digutena) eta erreala (pedagogia egokia daukaten subjektuek euskara berreskuratzeko aurrera daramatzaten egitasmoak) ezberdintzeko, ondoren datorren azterketaren beharra dago.

Imajinarioa eta sinbolikoa lotuta daude eta ez dira zuzenean agertzen. Hori dela eta, pertsonen diskurtsoetan agertzen diren sintomen bidez iragarri behar dira. Jacques Lacan psikoanalistaren eta Alain Badiou filosofoaren lanetan oinarrituko gara, batez ere, pertsonen subjektibitatea aztertzeke. Freud-en ideiak harturik Lacan-ek nia irudi ideala dela eta, beraz, nia alienatuta dagoela proposatzen du. Umearen nia ispiluan edo beste edozein elementu isladatzean izango du jatorria. Baina garai honetan umeak gorputzaren kontrolik ez duenez, hartzen duen irudia bere gorputzaren ilusioa baino ez da; amaren onarpenak ilusio hori baieztatzen du. Horregatik Lacan-ek esaten du, ispiluaren garaiak niaren betebeharraren lehenengo adibidea irudikatzen duela; hots, irudiaren interpretazio okerra egiten du haurrak. Horrela izanik, beste pertsona batzuek norberarekiko daukaten irudia bereganatzean, pertsonak, besteek emandako kanpo-itxura horrekin, subordinatu eta alineatu egiten dira. Hau da, subjektibitatearen eraikuntzan irudiak ezinbesteko funtzioa du, gizaki guztiak beraien irudia bereganatzerakoan eraldatzen direlako. Eraldaketa hori gertatzen da, norberak beste baten irudian bere burua ezagutzen duelako eta egituratuko duen balioren bat ematen diolako. Beraz, guraso, irakasle, gizarte, estatu eta abarretatik islatutako irudiz osatzen da nia. Irudi, hitz, keinu eta abar horiek dira, hain zuzen ere, subjektuaren zirrara eta sentipenak eratzen dituztenak; hau da, ordena imajinarioa. Freud-ek esan zuenez, adimena bi zatitan banatuta dago: kontzientea eta inkontzientea; bi horien artean gatazka bat dago, zeinak kontzientearantz ezegokiak izateagatik berarengandik urruntzen diren gordetako pentsamenduak sortarazten dituen.

Inkontzientea ez da zuzenean nian agertzen, sistema adierazle baten bidez baizik -linguistikoa zentzu zabalean-sinboliko izenekoa. Beste kontzeptu lacaniar handi bat ordena sinbolikoarena da, beraz. Sinbolikoa, hizkuntzari dagokionez, adierazle-adierazia harreman baten bidez eratuta dago, eta Lacanen ustez, adierazlea bikoiztasun honen arlo nagusia da; zeren eta subjektua, "bere egian", adierazlearen bidez agertzen da, edo beste era baten esanda, subjektuaren egia agertzen da. Goiko hori izango litzateke Lacan-en esaldi enigmatikoaren itzulpena: adierazleak, subjektua beste adierazle batekin ordezkatzeko du.

Honen guztiaren ondorioz, sinbolikoaren egitura nagusia norberarengan imajinarioaren bidez adierazten dela esan daiteke. Beste era batera esanda, denok hitz egiten dugu besteek emandako eta guk bereganatu dugun irudiaren bitartez. Aldi berean, irudi hau sinbolikoaren bidez transmititua da. Horrexegatik Freud-ek esan zuenez: nia ez da gure baitaren nagusi. Bestaldetik, ez dugu ahaztu behar imajinarioaren baitan hurrengo elementuak daudela: Ni ideala edo norberaren irudia; niaren ideala edo bestearen berdina izan nahia. Niaren ideala supeniaren kontra doa zeren eta azken honek debekatzearen zeregina baitu. Zera, pertsonarentzat kontrolaezina den baina aldi berean jokatzera bultzatzen duena. Niak gizartean pertsonaren grinak barneratzea du funtzioztat.

Honela bada, sinbolikoak goian aipatutako elementuekin egindako egitura baten barruan izango du bere esanahia, eta baita ere eurekin mantentzen dituen harremanetan. Hau da, sinbolikoak aipatutako nozioekiko memento bakoitzean hartzen duen funtzioetik izango du esanahi bat edo bestea. Goiko elementu horiek ez dira inoiz zuzenean agertuko baizik eta beste guztien bitartez. Hori dela eta, beraietariko bati buruz hitz egiten dugunean eraikuntza horretan parte hartzen duten beste

Koldo Ortiz de Ginea

- 1961ean jaio zen Gasteizen.
- Linguistika aplikatuan doktore da Dublingo Trinity College-n.
- Irakaslea da.
- Artikulu eta ikerketa egile gisa egun, besteak beste, Geu aldizkari-ko kolaboratzaile dugu, Historia Zertzeladak atalean.

guztiak ere kontuan hartu beharko ditugu. Hots, posizio-oposizio, presentzia-ausentzia harremanetan oinarritzen diren elementuez osaturiko egitura da inkontzientea. Pentsa dezagun edozein hizkuntzaren sistema fonologiko-fonetikoren funtzionamendu, antolaketa eta azalpenaren modua. Hau da, hain zuzen ere, Lacan-en esaldiaren esanahi sakona: inkontzientea lengoaia gisa dago egituraturik.

Teoria lacaniararen, erreala da hirugarren oinarritzko instantzia. Instantzia honek, agortezina, bere osotasunean irudikaezina, formaliza edo sinbolizaezina izateagatik beste guztiak mugiarazten ditu. Erreal honen zati bat sinbolizatzen den heinean, erreala errealitatea bihurtzen da. Dagokigun kasuan, hots, euskara-gaztelania dikotomia, erreala euskara berreskuratzeko eta justizia egiteko nahia da. Errealitateari dagokionez, euskara eta gaztelaniaren egoeraren mailaz arduratzen diren arloak arduratuko dira berataz. Errealitateaz aldizka egiten diren ikerketa soziologikoak arduratuko dira. Errealak, aldiz, hitz egiteko era berezien bidez baino ez du berba egiten. Lacanen hitzetan, sintomaren



**Aldatzea
gustatzen
zaidalako...**

**bonardi
armazoiak**

35€



Informa zaituz gure Kreditu Txartelen abantailaz



MENDIAOPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS

Andre Maria Plaza
Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ

Eskaerak: 04/01/07 alik 04/02/2013 arte du balioa

hizlari-izakia litzatekeena. Interpretazio eta entzuten duen subjektua dagoela existitzen da erreala, bestela, errealtatetzat hartuko genuke erreala.

Lacan-entzat erreala sinboliza ezina den neurrian, honek korapilo borromeoaren ikurraren bitartez aztertuko ditu bere eraginak. Irudi topologiko honekin, psikoanalista frantziarrak sinboliko eta imajinarioaren arteko harremanak azaltzen dizkigu. Giza egitura ezagugarri oro (gure kasuan gaztelania-euskara harremana memento zehatz batean) imajinarioaren erregistro propioen bitartez agertzen zaigu. Hau da, hizkuntza beti agertuko zaigu instantzia baloratzailer, normalizatzaile eta kognoszitibo bat bezala (imajinarioa sinbolikoaren aurkezpenaren modu bakarra da). Arlo nagusia ez da hizkuntza, baizik eta honek transmititzen duen irudia. Hizkuntza baten ezinbesteko arloa da bere dimentsio normatiboa, beraz, hizkuntzaren aspektu nagusia baldin bada, orduan esan beharra dago imajinarioa dela aspektu nagusia.

Gure subjektibitatea antolatzen duten oinarizko kontzeptuetara hurbiltzen saiatzen gara, kontzeptu horietan gure grinak azaltzen dira-eta. Hauek era konkretu batean, hau da, hizkuntza bat ala bestea erabiltzera garamatzate hurrengo kontzeptuen bitartez: supernia, larridura, kuraia eta justizia. Kontzeptu horiek ilustratzeko eta kontuan hartuta zein berriak eta zailak diren, adibide gisa, Peter Weir-en *Olerkari hilen kluba* film ospetsua erabiliko dugu.

SUPERNIA

Supernia, zentzu zabal batean, arau edo legeari dagokio, bai eremu familiarretan bai giza eremuetan: gurasoak, estatua eta abar. Printzipio moral hau, zezerk (errealak) bere kontra diharduenean agertzen da bereziki. Memento honetan beldurra eta pertsonen subjektibitatea afektatzen duen figura bat agertzen da. Honek imajinarioa aldatzen du larridura sortaraziz. Hau da, hain zuzen ere, gure kasuan gertatzen dena gaztelaniak bere indar normatiboaren (legala, literarioa, soziala eta abar) bitartez euskara berreskuratzeko nahiarekin topo egiten duenean. Tentsio honek sortarazten dituen ondorioak ugariak eta ezberdinak dira: larridura, simulazioa, arbuioa, justifikazioak, amorrusentimenduak etab. Aipatutako filman, Nolan zuzendaria izango litzateke supernia nagusia eta orokorrean filmaren bukaeran aurkezten zaigu arbitrarioa, injustua eta bortitza, irakaslea zentrutik kanporatzearen aurrean. Superniaren beste adibide bat Neil-en aita izango litzateke, autoritarioa eta injustua, bere semearen hilketaren nahigabeko eragilea dena.

Supernia kanpoko objektuekin hareman-modu bat edukitzera behartzen gaituen ahotsa da. Subjektuak barneratu duen ahotsa da, ikastoletako ikasleek, adibidez, euskara erabiltzeko duten grinarekin aurrez aurre. Arau morala edo ohiko morala da, hain handia, ezen arau horiek apurtuko dituen edozein ekintza, lekuz kanpokotzat hartzera bultzatzen duen. Egituren harrapatuak dagoen subjektuak ezin du gainditu lekuz kanpoko hori. Superniak ikasleengan itsasten den diskurtsoaren itxura hartzen du, ikasle horiek, askotan egin nahi luketena egitea oztopatuz. Ia kasu gehienetan, ez da behar inork debekurik jartzea, diskurtso horiek, barneraturik dagoenez, etengabe ekartzen baitio gogora, gaizki sentiarazi eta abiapuntura itzularaziz, superniara, hain justu. Errealtateak eta arauak; hau da, imajinario espainiarrak dena betetzen du, eta ez dio inongo ihesbiderik uzten Euskal Herriko hizkuntza mintzatzeko grinari, ohitura bihurtu baita

gaztelaniaz mintzatzea.

Euskara ikasten ari den jende askori, Gaztelaniaz mintzo den espazioa barneraturik daukanez, pentsatu gabe ateratzen zaio euskara, modu automatikoan. Babesik gabe aurkitzen dira kanpoko errealtate soziolinguistikoaren aurrean eta, ondorioz, hartan blai daude. Gaztelaniaren eremua erakargarri zaie oso, euskara ikasgelaren lau hormaren artean mugatuta gelditu zaielako. Beraz, supernai espainiarraren baitan harrapatuak daudela esan daiteke, eta hori bi arrazoi direla medio: batetik, ezarpen espainiarra barneratu dute inongo erresistentzia-mekanismorik gabe geratuz eta, bestetik, normalizat hartzen den kanpoko errealtatea dago.

Supernia, beraz, bi alderditan azaltzen zaigu: kanpoko errealtate modura; hau da, kanpoko zein barneko sinboliko modura, hots, imajinario espainiarraren bi aurpegi gisa. Kanpoko errealtatea gaztelania da mintzoa den aldetik eta, Saussureri jarraituz, esan daiteke, haren gauzapena dela. Barneko errealtatea, bestalde, hizkuntzaren erregistro gehi mintzoaren bitartez gauzatuko diren posibilitateak dira. Arazoa ez dago gaztelaniazko harremanek daukaten indarrean -euskarak ikasten ari diren batzuek esaten diguten modura-, baizik eta ustez kanpoko den errealtatea barneratu egiten dela, berezko bihurtu, azkenean, kontzientziatik kanpo dagoen automatismo bihurtzeraino. Hori gertatzen da gaztelania hutsez mintzatzen denean.

Laburtuz, esan daiteke, bi oztopo daudela, elkarrekin estu-estu loturik, hizkuntza menperatuaren erabilera zailtzen dutenak: kanpoko (gizarte diglosikoan nagusi den errealtate gaztelaniarra) eta barneko (kanpoko errealtate hori berori baina haurrak umetatik barneratzen duena). Hartara, gizarteratu eta lege morala lortzen da, ohitura eta ekanduen emari. Horren ondorioz, norberaren grina geldiarazten da. Gaztelaniaren arau barneratua eta euskara erabiltzeko grinaren arteko talkak erakusten du zergatik sentitzen diren gaizki ikasle horiek; zergatik minduta dauden, zergatik nahiko luketen euskara gehiago erabiltzea edo zergatik dioten ez dakitela zer sentitzen duten hizkuntza bat ala bestea erabiltzen. Euskararen imajinario lausoa daukate, eta horrek kontzientzia txarra eragiten die, horren kontziente izan ez arren edonondik azalarazten zaiena.



LARRIDURA

Beste kontzeptua, larridurarena, norbanako baten barneko tentsioa adierazten duen nozio subjektiboa da. Norbanako hori superniatik datorren zigor-beldurraren eta oraindik justizia-puntu bat formulatzeko betegabeko grinaren artean harrapatuta

dago. Sentimendu suntsitzaile hau (justizia grinen aurreko pausoa dena) euskara ikasten duten guztien artean, gehienetan disimulaturik dago. Honen adibide moduan hurrengo bi egoeretan aurkitzen diren pertsonak daude: supernia gaztelera aduna apurtzeko beldurra eta burutzen ez den euskara hitz egiteko grina. Film honetan Neil da larriduraren figura eta berari dagozkion egoerak hauek dira: egia artistikoari dion maitasun grina eta jasangaitz eta autoritario den bere aitak ordezkatzeko duen superniaren beldur da. Beldur horrek bere kuraiarik ezari irtenbide imajinario bat bilatzera darama: bere buruaren hilketa.

Larriduran bizi diren ikasleak Antigonaren irudi dira, euskara lege natural gisa gauzaturik ikustea nahi dutelako, euskararen gainekadura errealitate sinboliko izatea nahi dutelako, hau da, euskararen justizia bere osotasunean kokatuta egotea. Hartara, larriduran bizi direnak apurtzaileak dira zenbait kasutan, ahal denean gaztelaniaren legearen espazio sinbolikoa apurtzen baitute, hizkuntza horretan mintzo diren kideekin haserretzeraino. Alabaina, hizkuntza menperatzailearen legea ez da zatitzen; hau da, ez dira sortzen euskara normal erabiltzen duten taldeak eta, ondorioz, kokapen-lekua lehengoa da. Aldikako interbentzio hauek direla-eta gaztelania sinbolikoki suntsitzen dute, baina, hizkuntzaren heriotza sinboliko hori berehala berregiten da, menperakuntza-espazioa zabalduz. Pertsona horiek beren buruak erreprimitzen dituzte: azkenean edonork egiten duena egiten dute (gaztelaniaz mintzatzen direla, alegia).

Horregatik, gaztelaniaren espazio mugatuan euskararen egia infinitoa sortzean eta grina justu hau kokatu ezinean, larridurara eta superniara darama, gaztelaniaren legeko espazio injustura, hain justu. Itzulera etsigarri eta garratz honen arrazoia da, larriduran bizi dena bere etenaldiaren gainekaduraren presiopean bizi dela, eta praktikan frogatuz, euskararen justizia eskatzean, mundu guztia euskaraz mintzo dadin, ez duela bere etenik ematen, abiapuntura bueltatzea erabakitzen du; gaztelaniaren sinbolikora, hain justu. Euskal Herrian mundu guztiak euskaraz mintzatzeko deiak larridura ezabatuko duen



bidera eramango du, hau da, gaztelaniaren supernira itzultzera.

Euskararen imajinarioaren guttiegotasunean jarritako konfiantza berehala desagertzen da eta oinazea kentzeko premiak ahalegina amaitzera darama. Beraz, gaztelaniaren eremura itzuli beharra dauka, itxuraz presiorik gabe, larridurarik gabe bizitzeko.

Hartara, esan beharra dago, barne-indar izugarri handia dela grina, zeinaren bitartez, superniaren eta kanpoko errealitatearen oztopoak gainditu behar diren. Alabaina, grinak grina baino ez badu babesten, ez badago egin eta kontzientzia argian oinarritutako prozesu kolektiborik, grina ahultzen joango da eta azkenean kanporantz isuriko da, gaztelaniaren nagusitasunaren eskutan.

Larriduran bizi diren lagun hauek ez dute gaztelaniaren legea barneratu behar, eta mundu berri eraikiko duen lege berriaren bidez zatitu, grina grina huts ez izatera lortuko duena, grina partzialki bederen beteko duena. Une horretan, grina kuraiari bihurtuz, grina hori benetako egia, egia osatua, eta ez zapalduko gaituen egia osoa. Gauzak horrela, kuraiara igaro behar da, erabakiaren bidez, egia helburu izanik eta taldean funtsa jarritz. Talde horrek proiektu propioa eduki behar du -kasu honetan euskaraz hitz egitea- eta sortuz egiten duenean oinarrituko da. Hots, bizitza propioa du, eta horren harian izango du eragina gainerakoengan. Espazio horretan kontraesan guztiak eramanez bizi beharra dagoela esan nahi du eta, aldi berean, espazio hori aldatzen doala taldearen eraginari esker.

Beraz, beti erregistro imajinarioan egongo bagina, hizkuntza minorizatu baten normalizazioa pentsaezina izango litzateke, errealik gabe grina hil egiten delako. Honek garrantza Lacan-ek

esandako baina Alain Badiou-k garatutako beste kontzeptu batzuk eztertzea, kuraiari eta justizia aztertzea, alegia.

KURAIARI ETA JUSTIZIA

Badira pertsona batzuk subjektu osotat har daitezkeenak, euskararen erreala gidari dutenak, eta espazio gaztelera aduna aldatzeko barneko arau propioa duten bakarrak. Beren apustuaren bakantasunari eusten diote, gure herria euskalduna izan dadin aldarrikatzen duen egia generikoarekin konektatzen duten bitartean. Lagun hauek proiektu batean zehazten dute konpromiso hori. Dagoenarekin eten egin dute, eta hortik abiatuz, aurrera eramango dituen inplikazioa bilatzen dute, inplikaturik subjektibizatuz, mugitzen diren kokalekuan, euren giza-izaeraz jabetuz. Honela, edozein apustu justu sortarazten dituen sentimenduen jabe egiten dira, hala nola, gogo-berotasuna, norberaren buruarekiko poztasuna, etab. Benetan, egoerarekin modu imanentean apurtzeak mugatutako egia-prozesua da, edozein prozesu helburu bezala justizia edukiz aurrera egin dezan egin beharreko bihurtzeko fideltasuna.

Dinamika honek *amore ez ematera* darama; amore emateari-hots, euskararen egia zapuzteari- planteaketa propioaren baieztapenean eta konfiantzan oinarritutako subjektuaren etikaren zatia kontrajartzen baitio, baita gaurko egoera gaindituko duen ekintza-molde berriak bilatuz aurrera jarraitzeko interes desinteresatua ere. Prometeoren irudia dago hemen, zeina, bere apustuaren konfiantzan sustraiturik, egoerari dagokion edozein loturatik libre dagoen.

Kurariari esker gertakizunaren subjektuak superniarekin apur dezake, larridura garai dezake eta justizia egiteko gai izango litzateke hurrengo esparru hauetan: maitasunean, artean, zientzian eta politikan. Hori izango litzateke Tod Andersoni gertatzen zaiona kanporatutako irakaslearekiko zuzendariak daukan jarrera injustuaren aurrean eta justizia grinan matxinatzen denean.

Gizakia espazio-denbora koordinatu batzuetan ideal hori burutzera daraman helburua da justizia. Behin betez gero, justiziaren ideala lege bihurtzen da. Filmaren ikastetxean arau justu baten nahiak mugiaraziko ditu ikasleak beraien jardura guztietan, bereziki azkenengoan.

Subjektibazioa definitzeko era, kontzientzia hartzea izango litzateke, subjektuaren bat-bateko eraldaketa eta beti gertakizunaren eraginpean. Gure filman enuntziatu batzuen bidez agertzen zaigu subjektibazioa: "*Carpe diem*"; "*Har itzazue larrosak ahal duzun artean*"...

Beraz, euskararen erabileraren arazoari dagokionez, hauekin oso lotura estua daukaten bi kontzeptu daude: elebitasuna eta diglosia. Hizkuntzaren erabilerari buruz erakunde ofizialetatik jasotako informazioak, ebidentziatik abiatuta, dagoena aztertu eta azaldu baino ez du egiten. Emandako azalpenak, beraz, tautologikoak dira. Dagoena baino ez dute azaltzen eta kanpoan uzten dituzte hurrengo galdera hauek: nola heldu garen horretaraino, zer egin behar den egoera hau aldatzeko edo zergatik, egoera berberetan, guztiz ezberdinak diren egoerak dauden. Hau da, estatistika hauek ez daukate hartze-prozesu eta hizkuntza-erabilerari buruzko barne-teoriarik. Elebitasunak eta diglosiak hizkuntza nagusiaren eta beste hizkuntza minorizatu baten arteko egoera linguistikoaren mailak adierazten dituzte, baita pertsona batengan hizkuntza hauen maila ere. Ikuspuntu linguistiko funtzionaletik begiratuta, *subjektibitate normalizatu* egoera batean, bi kontzeptu hauek dagoena azaltzen dute. Hala ere, badaude pertsonak edo subjektibitate bereziak beraien determinazio eta apustuarekin egoera aldatzeko lanean dihardutenak, interbentzio eta hizkuntza minorizatu horrekiko fideltasunaz. Honek aipatutako dikotomia horien barne-gainditzea darama. Hau da, pertsonen subjektibitatean gertatutakoaren arlo nagusia eta hau hizkuntza honen berreskurapenarekin konprometitzen diren pertsonengan azaltzen saiatzen gara, egoera diglosikoa gaindituz. Subjektibitatearen gainezkaduran hizkuntza nagusi baten eraginik ez dago. Pertsona singular hauen jarrera eta konpromisoa izan dira, dira eta izango dira funtsezkoak hizkuntza minorizatuaren hedapen eta erabileran.

Grinari lotutako subjektibitatearen une bakoitzak etika deritzagun portaera-modalitatera darama. Honela supernia-larridura erlazioak pertsonarengan etsipena sortzen duela esan dezakegu (etsipenaren etika). Izenak berak dioenez etsipenak, pertsonak bizi duen egoera injustua ez eraldatzera darama (euskara etxeko girora mugatuta egon denez ezin da ezer egin egoera hori aldatzeko). Diskordantziaren etikak, bertan mugildutako pertsona bere justizia-idealak behin betirako betetzera bultzatzen du (euskara bat-batean ikastera eta erabiltzera.) Supernia-justizia erlaziotik eta larriduraren bidez, goraipamenaren etika sortzen da. Supernia batek babestuta, subjektuak arau bihurtu den justizia batean sinesten du (euskara koofiziala izateagatik salbatuko da). Eta azkenik, etika prometeikoa edo konfiantzaren etika daukagu. Munduan justizia-puntu bat burutzeko behar den kuraian oinarritzen da. Hau benetako subjektuaren etika da, ebidentzia guztiaren kontra bere ekintzen bidez hizkuntza minorizatu aurrera aterako duelakoan dago.

Badira subjektu subjektibatuak besteengan eragina dutenak, baina jakina da, baita ere, egoera horretara iristea zein ausazkoa den. Beraz, horretan sinesten badugu, baldintzak prestatu behar dira, jendeak, jaberazpenez eta komentzimenduz, ere egin dezan. Espazioa birkonposatu egin behar da, ez suntsitu. Politika zuzena egin behar da, zeinean jendeak berria dena justua delako errespetatuko duen, etengabe parte hartzera animatuz, prozesuan zehar subjektibitate berriak sortuz, eta

subjektibitate berriz osatutako prozesu berriak landuz. Kontuan hartu behar da, berria, zaharretik begiratuta, Samuel Beckett-en arabera gaizki ikusita -imajinarioan- eta gaizki esanda -sinbolikoan- dagoela. Berritasunak oro, tokiko pentsaera zuzenetik begiratuta, errefusatu egingo dira. On Kixote, adibidez, garai hartako esanaren arabera gaizki esanda egon zen; orain ordea, gaztelaniazko obra nagusia da. On kixoteren balentriak gaizki ikusita zeuden bere garaian. Hau da, gaizki ikusita eta gaizki esanda zeuden, portaera-arau ofizialek erreferente berriak gaitzesten zituztelako, eta aldi berean, jokaera berritzaile hura ulertzeko, zailtasunak eta oztupoak ezartzen zituztelako. Ez dezagun ahaztu berriaren eta zaharriaren arteko borroka gure baitan dagoela. Hori gainditzeko modu bakarra egia-prozesua sortzea da, subjektuak eraldatuz.

Beraz, lege berriaren kokatuko den justizia behar da. Ibilbide horrek fideltasun-prozesua bizi, aplikatu eta etengabean mantentzea eskatzen du. Gaztelaniaren legea zatitu ahal izateko euskara-gertakizunarekiko konfiantza eta fideltasuna behar da. Gaztelaniaren lege zaharra hautsi eta euskararen lege berria ematu behar da. Azken finean, gaztelaniazko superniaren eta honek dakarren kanpoko errealitatearen aurkako prozesuari ekitea da kontua, justiziazko proposamenean, ordea, non euskararen lege berria kokatu eta garatuko den. Hortaz, grina gauza dadin egindako bihurturak zehazten dute erreala. Horixe da erreala.

Erreala, kuraia, apustuaren eta bihurturaren mugimendua da, non okerrik ezin daitekeen egin, lege zaharra zatitu eta nahi izandako tokian lekutzean. Euskararen proiektua sortu eta mantentzean datza, hau da, kuraia orok barnean daraman mugimenduan. Bihurturak egiten ez duenak eta praktikarik ez duenak ez du inongo aukerarik imajinario euskalduneari mantentzeko. Apustuak subjektuari eragiten dio, jarraitu ahal izateko kemena emanez. Taldeak interbentzioak egiteko balio du, eta euskararen erreala gidaturiko imajinario euskaldunari tinkotasuna emateko. Erreal honek eusten dio helburuari, jakinik, egia ezin daitekeela osorik aurkeztu. Beraz, kontua ez da euskararen eremua bat-batean aurkeztea, norberarentzat bizitoki edo ikastegi den espazioa euskalduntzea. Erabakitzen horren ondorioz sortzen dira helburu zehatzak, inguruan dugun errealitatean egingarri direnak, bai, baina, aldi berean, ezinbestekotzat jotzen dena eskuratzeko, behar beste etendura egiteko prest egonik. Egia inmanente, gertakizuneko, izendaezin, generiko eta infinitoa den egitiaz isuritako proiektuez ari gara. Proiektu hori imajinarioa da, kasu honetan euskalduna, egia ezin harrapatu baitaiteke, soilik mugatu. Batek irudika dezakeen apustua da erreala gertakizuna eta irudi horren gainean, erreala jarraitzera bultzatzen du. Irudia ez da erreala aurretik sortzen, egitaruntz jotzeko erabakiaren ondorioa da. Imajinarioak erabakia betetzen du, ez da alde aurretik zehazten. Dagoenari ezetz esaten hasten da dena, ez dut nahi esanez eta zerbait berria baietsiz, beste zerbait egiten ausartuz. Horrela sortzen dira proiektu berriak, eta jarraitzeko erabakia hartu ondoren aurreratzen da proiektua. Proiektu hori landu eta gauzatu egin behar da, beti ere kontuan harturik (Lacan parafraseatuz) lekuan ez dagoela pentsamendurik, bizipen baten emaitza neurgarri bat baizik, eta pentsamendua bizitzean eta lekuz kanpo gertatzen den bizipen bakan horri buruz gogoeta egitean dagoela, berorrek ematen baitio bizi hizkuntzaren subjektuari.

NAVARRA 1936. DE LA ESPERANZA AL TERROR

(Nafarroa 1936. Itxaropenetik ikarara)



MARI JOSE RUIZ VILAS, liburuaren egilekidearekin solasean: "Nafarroako errepresioaz jakin nahi duen orok, liburu honetara jo behar du"

50 urtetan inork ez zuen ezer galdetu. Inork ez zuen deus esan. Isilik egon ziren; isilik eta burua makurtuta. Iluntasun horretan oroitzapen historikoa piztu zuen bakarria liburu bat: *Navarra 1936. De la esperanza al terror* (Nafarroa 1936. Itxaropenetik ikarara). Duela 17 urte argitaratutako liburu bera, baina oraingoan datu berriz hornituta kalean da, Altaffaylla kultur taldea eta AFAN (Asociación de Familiares de Asesinados Navarros) elkarteari esker. Oroitzapenaren liburutegian ezinbestekoa den liburua.

- Liburu hau aurrenekoz 1986an argitaratu zen, eta orain edizio osatuago bat argitaratu duzue. Nolakoa izan da prozesua?

1983an lanean hasi ginenean, Jose Maria Jurio historiagile nafarrak egindako lan interesgarri eta zabala oinarritzat hartu genuen. Berak lekukotza asko jaso zituen, jende askorekin hitz egin zuen, datu mordoa bilduta zuen, baina ez zekien hori guztia nola landu. Azkenean geuk hartu genuen lan hori. Berak esan zigun Altaffaylla kultur taldea zela lan hau aurrera atera zezakeen bakarria, eta hori dela eta bere artxibo guztia utzi zigun. Artxibo hori oinarri hartuta hiru lagun lanean hasi ginen: Nafarroako herri guztietara jo genuen, jendearekin hitz egin, kontaktuak egin genituen... Gutun mordoa bidali genituen informazioa eskatuz, hots, senideen zerrendak, errepresaliatuekin harremanen bat zutenen izenak galdetuz, bai eta udal artxibategietara, auzitegieta eta hilerrietara sartzeko baimenak eskatuz ere.

- Jurioren dokumentazioaz gain, AFANek argitaratutako *No general* liburuaren datuak ere oso baliagarriak izan zaizkizue, ezta? Bai. *No general* liburua AFANek Salas Larrazabal jeneralari

gerra zibila

emandako erantzuna izan zen. Izan ere, Larrazabalek zioen guda zibilean 600 fusilatu inguru egon zirela Nafarroan, eta AFAN elkartekoek, ordea, 3000 baino gehiago izan zirela esan zuten. Liburu horretan izen-abizenek osatutako zerrenda bat agertzen zen, eta beraz, gure lanerako ere oinarritzko zutabea izan zen.

- Beraz, Nafarroan fusilatutakoen kopurua ofizialki esandakoa baino askoz handiagoa izan zen.

Liburua argitaratu aurretik Larrazabal jeneralak emandako kopurua baino ez genuen, 687 fusilatuena, eta Ignacio Del Burgok emandakoa antzekoa zen, edo agian txikiagoa. Juriok, ordea, dezente pertsona gehiago zenbatuta zituen, eta 2200 fusilatu inguru izan zitezkeela zioen. Geure datu bilketaren ondorioz 2789 fusilatu izan zirela argitaratu genuen 1986an, euren

senideek baieztatuta eta jaiotze eta heriotza partidetan berretsitakoak. Hala ere, esan behar da liburua argitaratu genuenean jakin bagenekiela fusilatuak gehiago izan zirela, jende askok ez zuelako hitz egin nahi, gaiak deus esateko gai ez zen jendea zegoelako, beldur izugarria zuelako... Lehen edizioa faxisten altxamenduaren 50. urtemugan argitaratu genuen, eta harrিতuta geratu ginen ikustean gai honetaz argitaratzen zen aurreneko liburua zela, alegia, ordura arte inork ez zuela antzeko ikerketarik egin. Oso azkar saldu zen, eta bost edizio atera genituen.

- Eta zer dela eta argitaratu duzue berriro?

Ohartu ginelako azken urte hauetan datu berri asko geneuzkela, eta beraz, beste edizio bat kaleratu beharrean, edizio berritua atera behar zela. Ale bakar batean datu guztiak



Bacalao Giraldo



Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25
Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36
Gorbeia Merkatua - Zaldiaran plaza
GASTEIZ

- Eguneko makailu gesaldua
- Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin



ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta
erosotasuna zure esku"



ERROTA

HORTZ KLINIKA

Julian de Apraiz, 1 - GASTEIZ
Tfnoa. 945 213 390 • Faxe. 945 213 390
e-mail: errotadental@euskalnet.net



bildu ditugu: 70 fusilatu gehiago, Euskadiko ejerzitoan hildako 200 nafarren izenak, Aragoi fusilatutako nafarrak, Nafarroan fusilatutako aragoiarrak, Frantziara exiliatutako nafarrak, kontzentrazio-esparruetan hildako nafarrak... eta horrekin batera lekukotza eta argazki berriak bildu ditugu. Orora Nafarroako 133 herritara jo dugu informazio bila eta herrialdeko 168 epaitegietako artxiboak aztertu ditugu.

- Neurri batean liburu honek urtetan egon den topiko batekin apurtzen du, alegia, Nafarroak ez zuela "Askatasunaren Gurutzadarekin" bat egin. Izan ere, alde errepublikanoan frankistan baino hildako gehiago egon zen, ezta?

Bai, oraindik herri askotako monumentuetan "Caidos por Dios y por España" esaten da. Baina abizenak fusilatuen abizenekin bat datoz, frentean parte hartzera behartutako ezkertiarak zirelako asko. Epaitegietan artxiboak begiratzerakoan ohartu ginen "Caidos por Dios y por España" izenburupean agertzen ziren asko fusilatuak izan zirela. Beraz, datuak faltsututa daude.

- Nafarroak pairatutako errepresioa bereziki gogorra izan zen emakumeen kontra.

Errepresio itzela sufritu zuten. Burua soildu eta kalera ateratzen zituzten, errizino-olioa ematen zieten gainean kaka egin eta haietaz trufa egiteko... umilazio izugarria pairatu zuten. Alargunekin hitz egin dugunean jasandakoaren krudeltasunaz jabetu gara, oraindik beldurra gorpuztean sartuta dutelako.

- Datu bilketa honekin Nafarroan fusilatu zituztenen zerrenda erabat itxita dagoela esan daiteke?

Guk bederen itxiztat ematen dugu, nahiz eta jakin datozen urteetan datu gehiago aterako direla. Lan hau baino zabalagoa egitea ez da erraza; arloka egin daiteke, dela emakumearen errepresioa lantzeko, dela herrietako istorioak kontatzeko... baina oro har esan daiteke lan honek historia egin duela, eta ni bereziki harro nago parte hartzeagatik. Nafarroako errepresioaz jakin nahi duen orok, liburu honetara jo behar du, ez baitago beste ezer.

- Liburu honek galdutako memoria berreskuratzeko balio dezakeela uste duzu?

Bai noski. Memoria historikoaren berreskurapena funtsezkoa da, garena ezagutu nahi badugu izan garena ezagutzea beharrezkoa da. Gertatutakoak idatzita egon behar du, gal ez dadin.

ZER ESANIK DUTEN LEKUKOTZAK

"(...) Rios Capote jeneralak zera esan zuen: "Eskuak odolez zikinduta ez dituenari ez zaio ezer gertatuko. Gasteizen kontzentrazio-esparru bat dago. Atera nahi dutenek izena eman dezatela". 80 edo 90 atera ziren. Baztertu eta fusilatu egin zituzten. Nafarrak ziren batzuk, Berakoak, Errotxapeakoak beste batzuk...".

J. Gil (Aoiz)

"Ni CNTkoa nintzen eta segituan kartzelara sartu ninduten. Bartzelonara eraman ninduten eta 16 urte baino ez nituenez, ez zidaten frontera joaten uzten. Baina nik faxismoaren sarraskiak aski ezagunak nituenez, gerra oso borrokan ibili nintzen. Bukatu zenean, Santa Barbarako gaiztelura eraman ninduten, eta han hamaika tortura pairatu genituen...".

Felix Aznal (Mendabia)

Martin Villak artxiboak erretzea agindu zuen

Francoren heriotzaren ostean Espainiako agintariak artxibo asko desagerrarazteko agindu zuten Gobernu Zibiletik. "Tristura ematen dit informazio hori guztia galdu izanak, memoria historikoa berreskuratzeko ezinezkoa izango delako", diosku Mari Josek. Kontzentrazio-esparrua, afiliazio politikoak... datu horiek guztiak erre egin zituztela dio, eta beraz, ez dagoela horretaz guztiaz ezer ikertzeko aukerarik. 1978an egin zuten, UCD gobernuan zegoenean. Garai hartan Martin Villak artxibo errepublikarrak erretzea agindu zuen, eta horren ondorioz, dokumentazio oso baliotsua galdu zen.

LIBURUAREN FITXA TEKNIKOA

• Egileak: **Mari Jose Ruiz Vilas, Jose Mari Esparza Zabalegi, Juan Carlos Berrio Zaratiegi**

• Aholkularitza historikoa: **Jose Maria Jimeno Jurio**

- Zenbait lagunen kolaborazio bereziak
- Argitaratzen du: Altaffaylla
- Data: 2003ko azarara
- Orrialde kopurua: 856
- Salneurria: 47 euro



EUKENE DURANA:



“Gasteiz euskalduntzea da nire ametsa”

Orain dela 40 urte Gasteizen jaioa, Eukene Kimikan lizentziatuta dago eta irakasle lana egiten du Altsasuko institutu batean. Bidaiazale amorratua eta mendizalea bezala definitzen du bere burua; horren adierazle dira Amerikan zehar egin dituen bidaiak. Besteak beste, Kanada, AEBk, Kuba, Mexiko, El Salvador, Guatemala eta Txile bisitatu ditu, baina ez turista moduan, gehienetan internazionalista gisa joan baita. “Kultura desberdinak ezagutzea eta naturaz gozatzea” gustuko ditu. Horrez gain, euskararen alde egiten duen lana ez da gutxi, batik bat Bagare euskal tokiko bazkide aktibo bezala.

- **Duzun biziorik handiena?**
Bidaiatzea.
- **Eta bertutea?**
Ez dakit, nik ez dut hori esan behar...
- **Zer eskatzen diozu bizitzari?**
Bizitzaz gozatzea eta bizi ahal izatea.
- **Zerk ateratzen zaitu zure onetik?**
Gauza asko, baina batez ere, norberak egiten duen lana besteek ez baloratzea.
- **GEU elkarte eta aldizkariaren berririk bai?**
Bai, ezagutu bai.
- **Egunkari bat?**
Euskaldunon Egunkaria.
- **Telebista saio bat?**
Bakarrik pelikulak ditut gustuko.
- **Filmik gustukoena?**
Azken boladan ikusitakoa, ‘Goodbye Lenin’.
- **Jaki gozoren bat?**
Denetarik gustatzen zait.
- **Fobiarik, beldurrik?**
Iluntasuna.
- **Oporrak non eta zertarako?**
Latinoamerikako edozein herrialde. Atsedena hartzeko baina baita gauza berriak ezagutzeko eta esperientziak eta kulturen ezaguerak elkartrukatzeko ere.
- **Eta nora ez zinateke joango?**
AEBtara.
- **Liburu bat?**
Euskaraz, Iñaki Petxarromanen “Katearen begiak” eta gazteleraz, Joseba Sanzen “Silvio, Memoria trovada de una revolución”.
- **Kolore bat?**
Laranja.
- **Musika gustukoena?**
...Denetarik... baina adibidez Fermin Muguruza eta Kepa Junkera asko gustatzen zaizkit, baita musika etnikoa ere.
- **Gorputzeko atalik politena?**
...Ez dakit... politikak diren guztiak... ja, ja, ja...
- **Zer da Gasteizek duen onena?**
Ia leku guztietara oinez joateko aukera dagoela.
- **Eta txarrena?**
Udala.
- **Euskaraz bizi al daiteke Gasteizen?**
Argi dago ezetz, esaterako, gauza ofizial asko ezin direlako euskaraz egin.
- **Amets bat?**
Gasteiz euskalduntzea.
- **Amesgaizto bat?**
Politika arloan, gauzak orain dauden moduan mantentzea eta aurrera-pausorik ez egitea.
- **Zer eskatzen du herriak?**
Nire ustez, autodeterminazioa.

Xabier
taberna
musika ona
eta giro ezin hobea
Aiztozile kalea (KUTXI), 23

Uetzal
Hegoamerikako
jantzirik ederrenak
Pintore kalea. (S. Frantzisko kantuak
ertzuan) Tfnoa: 945 25 03 52

JOSETXO taberna
“ez dago
pintxorik”
Elizalde, 2/g
Tfnoa: 945 31 45 74
ARAIA (Araba)

GORETTI
ILEAPAINDEGIA
Hedegile kalea (KORRE),14
(San Migeleko pasabidea)
Tfno: 945 12 08 88 · 01001 - GASTEIZ

GERARDO MARKULETA &

"BATAK EZ DU BESTEA KENTZEN"

"Euskaraz egiten ari denaz iritzi baikorra dut"

Gaztetxotan hasi zen Gerardo Markuleta oñatiarra idazten. Hasiera batean gaztelaniaz egiten bazuen ere "euskaldundu nintzenezan, literatur hizkuntza aldatu eta beste bide bati ekin nion, poesian", dio idazleak. Harrezkero, lau poema-liburu argitaratu ditu jada. Aldi berean, narratiban ("Ipuin euskaldunak", "Asier eta egia gurutzatuen liburua") eta itzulpengintzan aritu eta aditu ere bada Markuleta, euskarazko poesia gazteleraz itzuli (Rikardo Arregi, Kirmen Uribe) eta erdarazkoa euskaratu (poeta katalan garaikideen antologia bat) dituelarik. Bere azken poesia liburuak -"Batak ez du bestea kentzen"- Joseba Jaka IV. Literatur beka jaso du eta Alberdaniak argitaratu du.



-“Batak ez du bestea kentzen” da zure poesia liburuaren izenburua; esaldi hau erabilia da oso eguneroko bizitzan. Noiz eta nola erabiltzen duzu zuk?

Gehixeago erabili beharko ote genukeen nago. Sarri gertatzen zaigu, edozein komunikazio edo ezin-komunikazio egoeratan, ez dagoela arazoa konpontzerik hain zuzen ere arazoa bera amankomunean deskribatzeko modurik ez dagoelako, alde bakoitzak uko egiten baitio bestearentzat oinarritzakoa den arazoaren alderdi bat aintzat hartzeari. Orduan esan ohi da, batak ez du bestea kentzen, askotan egia (egiaren puska bat) izaten delako bai bataren bai bestearen aldarrikapenean. Honekin ados ez egotea zilegi da noski, baina norberaren egia-puska Egia Bakartzat hartzeko arriskua dago.

-Liburua hiru zatitan banatzen da: azaldu poesia multzo bakoitzaren gaia.

"Iferneguan" zatian makalaldi hondatzaile baten irtenbidea kontatzen da, edo nola lagun dezaketen hitzek gehiegizko hotz eta beroetatik babesten. "Gosari jendetsua" atalean maitasun deitzen dugun horren inguruko gogoetak eta "kasuak" azaltzen dira; zer ikusi gutxi amodio erromantikoko topikoarekin. "Ertzetan", berriz, galdera-zerrendak, presazko oharrak, idazteari buruzko kezak...

-Poesia erromantizismoarekin lotzeko joera dugu, ezin falta maitasuna poemetan?

Erromantizismoa dela eta, garaia ari bagara, ustea ustel da, garai guztietan izan baita poesia (ahozkoa zein idatzizkoa, herrikoia zein "kultoa"), ez bakarrik XIX.

mendean. Erromantizismoa kalean erabili ohi dugun moduan ulertuta berriz, uste okerra hori ere, poesia izan baitaiteke soziala, politikoa, filosofikoa, narratiboa, didaktikoa, natura eta gizakia lotzekoa... Kontua da beharbada poesiarik ugariena (kaxkarrena ere bai, sarri) maitaxunexkoa izaten dela. Oso da zaila Auschwitz, Hiroshima eta gero, dibortzioa eta tratu txarrak nagusi diren garaiotan, maitasun-poema balekoak idaztea. "Amodio-poematza" ulertu ohi duguna, poetaren bozkario edo negar adierazpen patetikoak izaten dira. Benetako esperientziak bolero edo tango zahar batek baino askoz gutxiago azaltzen dute. Ez maitasunari ez poesiari buruz galderarik planteatzen ez duten poemak, hutsalak beraz nire uste behar bezain apalean. Nire "maitasun-poemak" giza harremanak aztertzen dituzte oro har, ez bakarrik bikote harreman hetero arrunt tipikoak (mutilak neska ezagutuz hasi eta aldarearen aurrean amaitu ohi diren horiek). Batzuetan iruditez zait haurrekin Olentzero edo Hiru Erregeez darabilgun gezur orokorraren antzeko zerbait egiten dugula helduok maitasunaz geure buruarekin.

-Poesia saltzea zaila al da? Zergatik?

Egia esan, ez dakit, ez naiz sekula saiatu. Poema-liburuaren orijinalak erraz "erosi" izan dizkirate, eta horretan zorteko ibili naiz, gero eta poesi liburu gutxiago argitaratzen baita. Irakurraldietan ere entzuleek arretaz eta gustura "erosi" izan dizkirate irakurritako poemak. Eta kantari batzuek ere erraz "erosi" dizkirate, beren kantuak egiteko. Bestela: poeta bera ere ez dago oso seguru zer saltzen ari

den; eta salbuespenak salbuespen, irakurle, argitaratzaile, irakasle, dendari, bibliotekari eta kazetariak aurreiritzi negatibo potoloa dute poesiaren aurrean (batzuetan arrazoi guztiarekin, hori ere esan beharra dago). Onena, poesia onarekin proba egitea: Sarrionandia, Arregi Diaz de Heredia, Uribe, Olasagarre, Erro... edo Manuel Bandeira, Charles Bukowski, Karmelo C. Uribarren... euskaraz irakur ditzakegu, liburuak erositara... edo liburutegian mailegu hartuta.

-Egungo poesiaren egoera zein da zure ustetan?

"Despiste orokorra, salbuespen gutxiarekin" izan zitekeen erantzun labur biribila. "Bueltan" ikusten dut, poesia "ikerketa" gisa planteatzetik (esperimentazioa, abangoardia, abstrakzioa), "komunikazio" gisa planteatzera (umorea, narratibitatea, "ahozkotasuna"). Kobazulotik atera eta irakurle bila: abesti, irakurraldi eta emanaldi "multimedien" bitartez publiko berria lortzen ari da. Euskaraz egiten ari denaz iritzi baikorra dut (hermetismoa, sermoikeria, lirikokeria, berba-jario hutsalak baztertzen ari gara), baina hemen ia oharkabean pasatzen da. Kanpoan aintzat hartzen hasiak dira, beraz, etorriko zaigu bueltan.

-Lan berririk bai? Noizko?

Lan berriak poliki. "Platero eta biok" itzulpena udaberri aldera argitaratuko da. Haur literaturako testu batzuk lantzen ari naiz, eta aterako da zerbait. Eta poemak karpeta poliki-poliki lodituz doa beti: bizpahiru urte barru, poema-liburu berria!



LOURDES OÑEDERRA, "BEGIZ JOTAKO IPUINAK" en KARIAZ

Alberdania argitaletxeak eta Ordóñez-Falcón Argazki Fundazioak (COF) "Begiz jotako ipuinak" izenburupean euskal literatura eta argazkilaritza garaikidea harremanetan jartzen dituen liburua kaleratu berri dute. Ordóñez-Falcón Argazki Fundazioko bildumako hainbat argazki eskaini eta hamabost euskal autore esanguratsuk horien gainean fikziozko ipuin bat idatzi dute. Idazleen zerrendan, honakoak: Lourdes Oñederra, Koldo Izagirre, Harkaitz Cano, Anjel Lertxundi, Ramon Saizarbitoria, Juan Garzia, Arantxa Iturbe, Xabier Montoia, Jon Alonso, Iban Zaldúa, Unai Elorriaga, Inazio Mujika, Edorta Jimenez, Aurelia Arkotxa eta Joseba Sarrionandia; argazkilarienean, William Eggleston, Gabriele Basilico, Javier Vallhonrat, Frank Thiel, Candida Hoffer, Nan Goldin, Gonzalo Puch, Xavier Ribas, Hannah Collins, Andreas Gursky, Elena del Rivero, Tacita Dean, Joel-Peter Witkin, Joan Fontcuberta eta Esko Mannikko. Proiektu berri-tzaile honetan aritutako Lourdes Oñederrarekin mintzatu gara.



- "Begiz jotako ipuinak" proiektuan partehartzaileen zerrenda luzea omen zen, baina horietatik 15 bakarrik izan zineten aukeratuak. Nola sentitu zinen zu horietako bat zinela jakitean?

Egia esan, pozik, harrotasun puntu bat ere sentitu nuela ezin dut ukatu. Horren beste aldea, noski, erantzukizunaren zama da. Beldur nintzen gai izango ote nintzen tranparik gabeko zerbait egiteko...

- Antza denez, aukera luzatu zizutenean "konbentzitu" behar izan zintuzten parte hartzeko. Zer dela eta?

Bai, lehenengo aldia zen eta ez nekien kontuak funtzionatuko ote zidan. Oso ideia polita iruditu zitzaidan, baina ez nekien argazkiarekin "literarioki" ezer egiteko gauza izango nintzen, ezer "aterako" zitzaidan. Horregatik, berehala esan nuen baietz, baina erabat lotu gabe nire burua: denbora eskatu nuen ikusteko ea zer gertatzen zen. Esan behar dut

Joxean Muñoz, bildumaren antolatzaile eta editorea, ezin hobeto egon zela. Irmotasun leuna erabili zuen eta horrek aurrera egiten lagundu zidan.

- Nola baloratzen duzu zure ikuspuntutik ideia hau?

Niretzat erabat berria zen eta hori batera izaten da erakargarri eta beldurgarri...

- Zeinen argazkia hautatu zenuen?, zer da bertan ikus daitekena?

William Eggleston-ena. Eman zizkidaten aukeren artean berehala konturatu nintzen argazkilar horrenak zirela zerbait mugitzen zidatenak barru-barruan, idazteko isuri hori daukadan lekuren batetik gertu. Ikusten dira gorantz doan errepide zahar bat, kaxkoaren ondorengo etxeren baten goikaldea, elektrizitate postea eta ongi irakurtzen ez den beste zerbaiten ondoren "stop" idatzia agertzen duen kartel herdoildua. Beste gauza asko ere bai. Uste dut

globala izan zela zirrara, nahiz eta etxea garrantzitsua dela uste duñan (istorioan ere etxea, etxeak inportanteak dira). Argazkiko argia ere ez da nolanahikoa...

- Erraza egin zitzaizun argazkia ipuin batekin lotzea, edota, ipuin bat asmatzea argazkia oinarria zenuela?

Oso kuriooa izan zen nola, argazkia hautatu ahala, ipuinaren puskak etorri zitzaizkidan gogora. Gero, memento latz pare bat izan nituen, baina ordenagailuko pantailan egunero ikusten nuen argazkia eta berak kontatu zion istorioa nire subkontzienteari (edo alderantziz agian: argazkiari begira jarrita, nire barrena istorioa kontatzen hasten zitzaion?).



LOURDES OÑEDERRA

*Donostian jaioa, baina Gasteizen bizi da aspaldi.

*Hizkuntzalaria (Filologia Hispanikoan lizentziatua eta doktore)

*Gasteizko Euskal Herriko Unibertsitatean Filologia fakultatean irakasle.

**"Eta sugeak emakumeari esan zion" da bere lehen eleberria (Erein argitaletxea). Liburu honekin irabazitako sariak:

- Kritika Saria 2.000
- Beterriko Liburua 1.999
- Zilarrezko Euskadi 2.000
- Euskadi Saria 2.000

* "Anderson Anderearen gutzia" (Gutziak ipuin antologian argitaratua. Txalaparta).

-Zein da zure istorioaren nondik-norakoa?

Argumentua hitz gutxitan kontatzea asko kostatzen zait, sintesi lan hori egitea ia ezinezko zaidalako, ez baitut gai zehatz baten inguruan idatzi jakinaren gainean eta ez dudalako nahi orain



Southern Suite (The stop sign). William Eggleston, 1981. Ordóñez-Falcón Argazki Fundazioak utzitako argazkia

atzekoz aurrera ere gehiegi pentsatu nahi... Zerbait esatekotan, amodioa, dependentzia eta sufrimendua, desamodioa eta denbora daude: nola gauzak gertatuta gero, denbora pasa denean, begiratzan badiogu geure bizitzari gidoi moduko bat ikus daitekeen. Horregatik jarri nion, beharbada, "Beranduegi" izenburua. Dena dela, ez nago erabat ziur esaten ari naizenaz. Agian horrelakoak izugarri interesatzen zaizkidalako iruditzen zait horiek oso presente daudela. Onena irakurle bakoitzak egitea bere argumentua.

-Idazteko orduan baldintzarik ezarri zuten antolatzaileek?

Ez, luzera bakarrik finkatu ziguten. Aurkezpenean esan zuten luzeagoak ere onartu zituztela azkenean. Ni nahiko txintxo portatu nintzen (ez nuen arazo berezirik izan horrekin).

-Zer-nolako esperientzia izan da?

Polita, nekagarria, interesgarria. Orain besteei gustatzea litzateke esperientzia (ondo) osatuko lukeena.

-Lourdes Oñederraren lan berririk, bai? Noizko?, zertan zabilta orain?

Bai. Noizko ez dakit, benetan. Oraingoan, gainera, nahiago dut ez jakin: lanaren aro batzuetan eperik ez izatearen askatasuna erabat beharrezko gertatzen zaidala uste dut literatura kontuetan (linguistikan, berriz, epeak behar ditut hasiera-hasieratik!). Lehendik ditudan puxka batzuk biltzen hasi naiz, baina hori egitearekin berriak ateratzen zaizkit eta ez dago modurik lehengoaren txukuntze hori bukatzeko. Ikusiko dut zer forma ematen diodan guztiari... Nobela izan litekeen zerbait ere hasi dut, baina ataskatu egin naiz eta beldur naiz: ataskoa gehiegi luzatzen denean, utzi egin behar izaten baita: usteldu egiten da egindakoa, benetakotasuna (edo auskalo zer) galtzen du eta ez nau bultzatzen idazterakoan (olaturik gabe gelditzen naiz txanpa egiteko). Bestalde, linguistikaren alorrean, fonetika-fonologiako liburu bat bukatuko dut hil honetan (urtarrilean).

Argazki - Estudioa
Erramun
 Hozardio Euzkoier, 23 Tfn: 13 71 02
 Askatasun kalea, 5 Tfn: 26 19 91
 01006 01004

Dalvez maketazioa
 argitaratzaileak
 Tel./Faxa: 945 24 52 69
 Tfnoa: 652 77 65 09
 dalvez@dalvezdiseinua.euskalnet.net diseinua

BAR KLAKÉ
 KUTXA, 2
 TFNO. 143883
 GASTEIZ

ARANBIZKARRA
 ZURE
AUTOESKOLA!
 Valladolid kalea, 16
 Tfnoa: 945 28 28 39
 01002 Gasteiz

PATXI ZUBIZARRETA, "LEKUKO DESEROSOAK" KOMIKIAZ

Patxi Zubizarretaren ipuinak eta liburuak irakurtzen ohituak gaude, ez berriz komikiak. Oraingoan Jokin Mitxelenaren irudiez lagunduta idazleak Gasteizko Udalaren Euskara eta Ingurumen sailak eskatuta "Lekuko deserosoak" izeneko komikia argitaratu du. Kaleratutako 10.000 aleetatik, 7.000 banatu dira gazteen artean eta 3.000 aldiz, salgai daude 9 euroren truke.



egin behar izaten ditugu. Berez datozkigunak eta enkarguak, nolabait bereizteko. Eta enkarguak ere era guztietakoak izan daitezke. Batzuetan pribilegio hutsa, esate baterako, Santa Maria

katedralari buruzko liburu bat idaztea eskatu zidatenean. Beste batzuetan abentura hutsa izan daitezke, esate baterako, arrotza zaizun alor batekoak direnean. Eta halaxe gertatu zitzaidan lan honekin. Alde horretatik, iruditzen zait udalaren erabakia ere nolabaiteko apustua izan dela, bai proiektu motaren aldetik bai idazle-ilustratzaileen aldetik

-Nori zuzenduriko komikia da? Zer helburu dauka komikiak?

Enkargua gaztetzkoentzako komiki bat egitea izan zen, euskaraz, eta ingurumena babestearen aldeko mezu bat ekarriz. Euskararena ez zen aparteko arazoa, bai, oster, ingurumenarena: mezu esplizituegia, lan didaktikoegia izatea, eta abarren abarra... Baina esango nuke hasiera-hasieratik gure artean adostasun eta sintonia handia egon zela, batez ere sortzaileok izan behar genuen askatasunaren inguruan. Hobe zen lan erakargarri bat egitea mezu

"haur eta gazteentzat idazten dugunok beti saiatzen gara gure lanak helduentzat ere erakargarriak izan daitezen"

argiegia ematea baino. Dena dela, haur eta gazteentzat idazten dugunok beti saiatzen gara gure lanak helduentzat ere erakargarriak izan daitezen.

-Jokin Mitxelenak egin ditu marrazkiak. Zer-nolako hartu-emaña izan duzue?

Lehendik ere harreman handia izan dugu, katedraleko liburua, esate baterako, elkarren artean egin genuen. Lan asko borobildu ditugu elkarrekin. Alde horretatik, konfiantza dugu pentsatzen duguna esateko eta elkarren motibagarri izateko. Komikiaren aldeko apustu hori, berarekin, pizgarria zitzaidan, eta ez hain arriskutsua.

-Ideian bat etorri al zarete edo zirriborro ugari egin behar izan dituzue emaitzarekin biak gustura geratzeko?

Neure ibilbidean lehenengo aldiz, idatzi baino lehen marrazkiak egin behar izan nituen. Orriz orri planteatu nuen lana, binetaz bineta, eta berarekin adostu eta gero hasi nintzen binetetako glóboak hitzez betetzen. Aurreko lanetan baino askoz ere lan bateratuagoa egin behar izan dugu, eta nik uste hori emaitzan igarri egiten dela.

-Hau al da zure lehen komikia?

Komiki irakurle handia izan nintzen gaztetan. Historiaurrea dirudi, baina ez da ahaztu behar gure etxeetan telebista hamar bat urterekin erosi genuela, eta asteburuetan kioskoan erosten genituen komikiak ostegunetan trukutzen genituen. Gero, oro har, urrundu egin nintzela esango nuke, literatura soilik idatzira hurbiltzeko, harik eta proposamen hau egin zidaten arte. Beraz, zalantzarik gabe, hau da nire lehen komikia. Hala ere, esan beharra daukat bai nire haur eta gazte literaturan bai helduenean marrazkiek presentzia handia izan dutela. Helduentzako Barrikadak nobela laburrean, adibidez, Antton Olariagaren marrazkiak nabarmentzen dira.

-Nola eta zergatik erabaki zuen Udalak lan honetarako zurekin harremanetan jartzea?

Literaturarekin bizitzea erabaki dugun idazleok era guztietako lanak

LOS HERRAN INSTITUTUA, EUSKARAREN ALDEKO APUSTU SENDOA, 25. urteurrenean



Orain dela 25 urte sortu eta jadanik euskarri egonkorak dituen arren, hezkuntzaren arlo berriak garatzeko beharra topatu zuen Los Herran institutuak erreforma ezarri zeneko garaian. Hauen artean, euskararen ezarpena garrantzitsuena izan zen eta astiro-astiro B eredu aurrera eramatea lortu du. Hurrengo urratsa euskara hutsezko ikasteredua izango da. Bien bitartean, eta gure hizkuntza bultzatzeko asmoz, inguruko ikastetxeen arteko lehiaketa kultural interesgarria antolatu zuen igaro den urritik abendura bitartera.

1 979. urtean atek zabaldu zituenetik, ikastetxe erreferentea eta izen onekoa izan da Los Herran institutua. Betidanik A ereduko programa eskaini die ikasleei; egiazki, gaur egun, eskaintza zabaldu egin da, egungo egoerari egokitzeko beharra eta

ikasleen eskaerak direla eta. Honela, 1995/96. ikasturtean, Gasteizen hezkuntza-erreforma ezarri zenetik, ikastetxe publikoak berritze plan bati ekin zion, euskararen normalizaziorako programa abian jarritz. Koldo Obregon Los Herran institutuko idazkari

eta irakasleak esan bezala, "argi eta garbi daukagu D eta B ereduak etorkizuna izango direla, egun A eredu oso mugatuta dagoelako" eta euren asmoa euskara arlo guztietara zabaltzea dela plazaratu du.

Pixkanaka Los Herran institutua euskara munduan murgilduz joan da, lehenik eta behin B eredu ezarriz. Izan ere, euskara ia irakasgai guztietara zabaltzen dela azaldu digu Obregonek, irakasgai komunez gain hautazko gehienak ere euskaraz ematen baitira. Horretarako, irakasleriak birziklapen garai bati ekin zion eta gehiengoak ikasteredu guztietan klaseak emateko titulazioa eskuratu zuen.

Ikasle falta, arazo nagusia

Tamalez, bidean topatutako oztopoak bestelakoak izan ziren; hauen artean garrantzitsuena, ikasleak erakartzeko zailtasuna. Horren haritik, Koldo Obregonek argitu duenez, "normalean, inguruko ikastetxeetako ikasleak etortzen dira Los Herran-era A eredu egitera, alabaina, Aranzabela eta Aranbizkarra ikastoletako gazteak B eta D eredu eskaintzen duten beste zentrotara joan ohi dira, batez ere, ez dakitelako hemen bertan ere euskaraz ikasteko aukera badagoela". Beraz, bazuten egitekoa. Hau da, matrikulazio epean informazio kanpainak egiteaz gain, inguruko ikastetxeetara hurbiltzen dira urtero bertako ikasleei Los Herran institutuko programazioaren berri emateko. "Esfortzu handia egin behar izan dugu ikasleak gurera ekartzeko", dio Obregonek.

Azkenean, orotan gairi euren helburua eskuratu du institutuak eta orain arte 500 gazte baino gehiago izan dira bertan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza euskaraz ikasi dutenak. 2003/04 ikasturteari dagokionez, 51 ikasle B eredu aukeratu dute eta zifra honi beste 31 gazte gaineratu



Lehiaketa kulturalaren sari banaketa.



behar zaizkio, aurten Batxilergoko lehenengo kursoan aipatutako eredia sartzea ahalbidetu duelako institutuaren lanak.

Etorkizunari begira, "B eta D ereduak indartu nahi ditu institutuak, betiere A eredia mantenduz", azpimarratu du Obregonek.

Lehiaketa kulturala

Aipatutako xedea lortzeko inguruko ikastetxeen arteko lehiaketa kulturala antolatu zuen institutuak, Arriaga Megadendaren laguntzarekin, igaro den urritik abendura arte, non Aranzabela eta Aranbizkarra ikastolek eta Lopez de Gereñu eta Angel Ganibet ikastetxeek parte hartu zuten. Helburu anitzeko lehiaketa izan zen hura; batetik, B eta D ereduak

bultzatzea, bestetik, euskara arlo guztietan erabiltzea posible dela adieraztea eta, azkenik, ikasleengan jakinmina eta ikertzeko grina sustatzea. "Euskararen aldeko ekintza bat prestatu nahi genuen eta memento honetan zerbait berezia egitea polita izango litzatekeela pentsatu genuen, aurten gainera, institutuak 25. urteurrena ospatzen duelako", azaldu digu Obregonek. Gainera, bide batez ikasle berriak erakartzeko modu ezin hobe bilakatu zen aipatutako ekitaldia: Bertan Derrigorrezko Hezkuntzako 5. eta 6. mailako 260 ikasle inguruk lehia egin zuten eta 8 astetan Gasteizko historia eta kulturari buruzko lehiaketa gauzatu zen. Aste bakoitzeko galdera bana zituzten fitxak bidaltzen zituzten ikastetxeetara; gehienetan hauek arras zailak izaten zirenez, ikasleek laguntza berezia jasotzen

zuten, hots, astero hiriko denda baten izena agertzen zen fitxan, bertan galderaren inguruko informazioa lortzeko aukera zutelarik. Honela, ikasleak konturatu ziren Gasteizko eguneroko bizitzan euskara erabiltzea posible dela.

Erantzunak asmatzen zituzten ikasleen artean sari ugari banatu ziren; astero Arriaga liburudendan trukatzeko 30 euroko bonoa zozketatu zen eta horrez gain, abenduaren 18an institutuak antolatu zuen festan honako sariak banatu ziren: ordenagailu bat, argazki-kamera bat eta Home-zinemako sistema bat. Zalantzarik gabe, euskararen normalizaziorako ahalegin handiak egiten ari dela argi asko utzi du Los Herran institutuak.

www.institutolosherran.org

IZARRA TABERNA - JATEXEA
BITORIANO - ZUIA (ARABA) • Tfn: 945 430 073

XIXILU JATEXEA
AMARIKA PLAZA, 2
Tfnoa: 945 23 00 68 • GASTEIZ

Obren egite eta zuzentzea
ALTUNA Estudioa
"Azerlanak, Ziurtagiriak, Proiektuak, Lizentziak"
Arkitektura, Barne Diseinu eta Dekorazioa
Florida kalea, 9 behean - 01005 GASTEIZ
Tfno./Faxa: 945 14 02 17 • Mobilak: 639 81 51 30

RAFA TEJA ATELIER
"Zetazko eta kotoitzko eburnak eskuz margotuhak"
- ZAPIAK -
Arantza Arregui
Ramiro Maeztu, 1 • Tfnoa: 945 13 33 59

MARRAZKIAK • KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK
zurbeltz
Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 945 13 27 20

EAJ PNV
Hitza, bihotzaren giltza:
GORA EUSKADI
ASKATUTA!

OTSAILA

3, 10, 17, 24

PARRAL TABERNA

- 3an, ANTZERKIA:
TORPEDOLEVEL: "Las chicas serias no gustan"
- 10ean, MUSIKA: LOS TORNILLOS
- 17an, ANTZERKIA: PÁNICO ESCÉNICO: "Solas"
- 24an, ANTZERKIA: MATXIN: "Ni izango naiz the number one", GEU elkartearen eskutik Asteartero, 20.30etan

21

IHAUTERIAK

24

KULTUR ERROTA & GEU

*Biraka dabilen harria,
sorkuntzan ari den
herria*

Otsailak 24 (asteartea)
MATXINEN "NI IZANGO
NAIZ THE NUMBER 1"
EMANALDIA
Parral-en, 20.30etan

5, 12, 19, 26

MINTZALAGUNA,

GEU elkartearen eskutik
Ostegunero, Falerina kafetegian
(Montehermoso), 19.00etatik aurrera: asmorik baduzu bertan parte hartzeko elkartean izena eman ezazu (945222153, arratsalde. Josune).

15

GEUREKIN MENDIRA

OTSAILAREN 15ean

BADAIAN, OTEROS (1038 m.)

ARDURADUNA: IÑAKI (945146296)

IRTEERA: LOVAINA PLAZAN, goizeko

9.00ETAN

25

IRAKURLE KLUBA (GEU Elkarte)

HIKAATENEO-N ARRATSALDEKO 20.00ETAN

Otsailaren 25a, asteazkena Rikardo Arregi, Kartografia, Alberdania 1998. Idazlea bertan egongo da.

beste...

35. SAN PRUDENTZIO ARGAZKI LEHIAKETA

Antolatzailea eta informazioa: Arabako Argazki Elkarte (S. FF. A.) Lanak aurkezteko epea: martxoak 19



5

AGATE DEUNA

7

**ARABAKO
BERTSOZALE
ELKARTEA
IKASTARO
OSAGARRIAK**

Larunbatetan,
11etan, Amaia
Zentroan

Otsailak 7:

Jon Maia

Otsailak 21:

Igor Elortza

Martxoak 6:

Igor Elortza

Informazio

gehiago:

945010505

Errege atea, 9 - GASTEIZ
Tfnoak: 945 25 05 30 / 945 25 66 85

G E U A L D I Z K A R I A
IZAN ZAITEZ HARPIDEDUN!!
Tfnoa: 945 22 21 53
geugaste@grn.es

OTSAILA

14 MAITASUN MEZUAK SMS BIDEZ

GEU ELKARTEA-K SMS bidezko maitasun lehiaketa antolatu du.

Oinarriak honakoak dira:

1. Pertsona bakoitzak ezin izango du mezu bat baino gehiago bidali.
2. Mezuaren ostean sakeleko telefonoaren zenbakia eta adina jarri beharko dira.
3. Mezuak jasotzeko epea otsailaren 14an amaituko da.
4. Mezuak jatorrizkoak eta euskaraz izan beharko dira.
5. **SARIAK:** Bi sari egongo dira. 1. eta 2. saridunek puntako euskal musikako bi talderen disko bana jasoko dute. 1. saridunak bi diskoren artean aukeratzeko lehentasuna izango du.
6. Mezuak **honako telefono zenbakira** bidali behar dira: **615 78 56 17**

EZ OHIKOAK

9 GEU ELKARTEAREN KONTSEILU TALDEAREN BILERA

Joan den urteko ekainean lehenengo bilera egin ondoren, proposamen berriak aztertzeko bilduko da GEU elkartearen Kontseilu Taldea.

EGUNA: Otsailaren 9a, astelehena

ORDUA: Arratsaldeko 7:30etan

TOKIA: Landatxo Gizarte Etxea

*Gai ordena honako hau izango da:

1. Enpresa handiak eta euskara
2. "Euskaldunok mendira eguna" ekimenaren berri eman eta aztertzea.
3. Euskarazko ekimenen berri emateko antolatzen ari garen sarearen berri eman eta proposamenak jaso.
4. Webgunea
5. Kantu Talde bat osatzeko proposamena aztertu
6. Mahainguru bat antolatzearen proposamena aztertu
7. Norberak lekarkeena.

JON AIZPURU V SARIA

otsailaren 7an eta 8an

JON AIZPURU V SARIA

JESUS OBRERO IKASTETXEA ANTOLATUA

Helburua: Euskara Gasteizko kaleetara zabaltzea eta Jesus Obrero-ren euskararekiko atxikimendua adieraztea, Bide batez, Jon Aizpuru izeneko jesuita euskaltzalea gogoratzea.



• OTSAILAK 7

ARABAKO ESKOLARTEKO BERTSO ETA KANTU TXAPELKETAren FINALA

Otsailaren 7an, arratsaldeko 7.30etan,
Dendaraba-ko aretoan.

Bertan, finalera iritsi diren bertso eta kantak
entzun ahal izango dira.

• OTSAILAK 8

TXIRRINGA MARTXA.

Otsailaren 8an, Jesus Obrero-ko patioetik aterata, Gasteizen zeharreko ibilbide polita antolatu da. Bukaeran, Plaza Berrian, ekitaldia: globo aerostatikoa, sarien banaketa, edarien banaketa... Euskaltel txirrindulari taldeak ere parte hartuko du (ez dago ziurtatuta; etorri ezik talde jubenila etorriko litzateke). Nahi duenak parte har dezake martxa honetan.

EKINTZAK

geugaste@grn.es • geuelkartea@grn.es

UZTINTZA
KERAMIKA TAILERRA
KERAMIKA HERRIKOIA
ETA BERRIA
HEDEGILE kalea (Korreria), 120
Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ



LANDAZURI IKASTOLA

Adi 2004-2005 ikasturterako
aurrematrikulazioari!


OTSAILEAN

'D'
eredua

Erdiguneko
ikastola
bakarra

Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea, 5 • 01009 GASTEIZ - Tfnoa: 945 14 00 66

Gauzek hasiera eta amaiera bat izan ohi dute... 'Idazleen gurpilean' ere bada horrela eta 2002ko abenduko alean Lourdes Oñederrak hasitako istorioak ("Neska haren irribarrea") bukaera izan zuen Karmele Jaiok urriko alean idatzirik "Jainkoarenak egiten" istorioan. Kateako bigarren istorioaren hasiera Luiandoko Isa Diaz-en eskutik etorri zitzaigun, 'Depende' izenburuz. Hortxe dabilta, beraz, idazleak katean bigarren istorio honi eutsiz. Urtarrileko alean, kateako azkena den Txabi Arnali egokitu zitzaion Depende-ren III. atala osatzea. Orain, otsaileko alean, zuek irakurleak hainbeste testu atal artean gal ez zaitezten, egokia iruditu zaigu katearen nondik-norakoen berri ematea, bai eta azken istorioaren orain artean argitaratu hiru atalen laburpenak zuentzat biltzea. Eta gero gerokoak!!!



I. atalaren laburpena (azaroko alea)

DEPENDE. ISA DIAZ

Musika talde bateko kideak, erlatibotasunaz mintzo. Josu, taldeko kideak ez ditu halako eztabaida luzeak gustuko, Taberna bat, txirriak, hitzak gora eta behera; kikarak, hautsontzia, garagardoak... Esku artean duten musika proiektuaz aritzeko elkartu dira, teoriak. Josuk ospa egitea erabakitzen du; berak sortutako kanta berri batentzako hitza zekarren paper batean idatzita. Gosea, gerra, miseria, sufrimendua, injustizia, Maddiren ahotan... ..Baina Maddik berak Afrika ez duela aipatu adierazten du.

II. atalaren laburpena (abenduko alea)

DEPENDE II. JON ARRETXE

Sasimusikariaren arteko eztabaidak hor dirau: funtsezkotasuna, dependetasuna..., txirriak erre eta erre. Halako batean Josu agertzen da berriro ere tabernako atetik oihuka, eskopeta bat eskuan duela. Tabernaria badaezpada makurtu egiten da barraren atzealdean. Lagun guztiak kikildurik, Josuk, berak idatzi kanta irakurtzeari ekiten dio... eskopeta eskuan duela. Barre kate batek eten egiten du irakurketa. Orduan Josu tiroka hasten da: banan-banan garbitzen ditu guztiak. Ondoren, bere txakur Lagunekin beste taberna batera abiatzen da; tabernaria eta indiar hazpegiko bezero bat baino ez daude bertan. Laranjazko mirinda eskatzen du, metraje laburreko film ospetsuari jarraituz, tramankulua txamarra barruan ezkutaturik daramala. "Entzun nahi duzue nire azken kantarako asmatu dudana letra?", galdetzen die.

DEPENDE

III. atalaren laburpena (urtarrileko alea)

DEPENDE III. TXABI ARNAL

Tabernariak inolaz ere ez du Josuren kantaren letra entzun nahi, eta halaxe adierazten dio. Ondoren, Josuk garagardo bat nahi baina dirurik ez duela esaten dio tabernariari; azken honek garagardoa ateratzen dio erratza pasatzearen trukean. Tabernan dagoen beste bezeroa, indiarra, auzoko polizia da eta eskualde horretako tabernak zaintzen ditu; bere asmoa da hortik 'Goiko Taberna'ra joatea. Hau entzutean Josu, artega, dardarka hasten da, bertan, Goiko Taberna-n, sarraskia burutu du-eta. Josu poliziarekin doa haruntza, eta heltzerakoan, poliziak ikusitakoaz ezer esan aurretik, Josuk eskopetaren kanoia giltzurrunen aurka jarri eta bertan akatzen du indiarra. Josuren hatz-aztarnak edonon. Kanpoan ate joka dabil hemezortzi urte inguruko neska bat: "Josu, zabaldu atea mesedez! Badakit barruan zaudela. Lagun batek lagunduta ikusi zaitut sartzen... Asmatu berria daukat doinu bat eta pentsatu dut agian zuk izan zenezakeela ongi datorkion hitzen bat...". Edurne da. "Nork esango ote zion Edurneri taberna horretan elkartu behar zirela taldekideak?" Eta txakurra? Lehengo tabernan ahaztuta.

KATEA

...patxi zubizarreta iban zaldua rikardo arregi joxean sagastizabal edu zelaieta gerardo markuleta ana arregi ~~MIKA~~ isa diaz JON ARRETXE txabi arnal lourdes oñederra ...

estihu breñas glz. de zarate

sartu
Zure arropa eta oinetakoak
www.sarludenda.com
Kutxillera, 27 • Gasteiz • 945 260 710

BEIRA TABERNA
JANTOKI BEGETARIANO
EAN PROBATZETIKO ZARANGOAREN KASTOIA, 4
01001 - GASTEIZ
TEL. 945 27 52 33

BEIRATE ESTUDIOA
MIKEL DELIKA
Txikita kalea, 1
Tfno. 945 14 64 10
GASTEIZ

HEGOALDE
Euskaltegia
Matrikula zaituz !!
Jose Lejarreta 9 behea
Tfnoa 945 28 41 96
01003 GASTEIZ

Nafarroa, KATEAREN BEGIAK

Iñaki Petxarroman. Katearen Begiak liburuaren egilea



1.200 urtean eman zioten Nafarroari kolperik zitalena. Ez zuen galdu independentzia bere lurralde osoan, baina lurraldearen erdia galdu zuen, eta itsasoko irteerarik gabe geratu zen. Txikiegi, errenka, utzi zuten bi auzo erraldoi eta boteretsuren artean. Azken kolpearen zain utzi zuten, beraz, 1512an emango zioten kolpe lazgarriaren zain. Baina 1200. urtean Nafarroa zatikatu izanak garrantzia izugarria izan du hurrengo mendeetako ibilbide historikoan. Mendebaldeko nafarrak, indarrez, gaztelar bilakatu zituzten nazionalitatez, berezko jatorri euskaldunari eutsi ahal izan zioten arren.

Eta hain indarrean daude 1200. urteko konkista haren ondorioak, ezen, Nafarroak norabiderik gabe jarraitzen baitu,

subiranotasuna eta lurraldea berreskuratzea ekarriko dion bide zuzena aurkitu gabe. Nafarroak beti izan du oso present herri konkistatua dela, arrotzek menperatua dela, zatikatua dela, eta egoera horri aurre egin izan dio historia osoan zehar. Ongi, gaizki, zuzenago eta okerrago, beti egin dio aurre zapaltzaileari. Ideia horretatik sortu eta jaio zen Katearen Begiak liburua. Izan ere, Nafarroaren historiari egindako omenaldi bat da liburua, Nafarroak eman dituen seme-alaba ausart eta adoretsuei egindako omenaldia.

Izan ere, zazpi pertsonaia hautatu ditut liburua osatzeko, garai ezberdinen ordezkari. Zazpi pertsonaia, zazpi garai, kate bat den herri honen historiaren lekuko: Antso Azkarra erregea; Pedro Nabarrakoa mariskala; Rose Iturbide ume saratarra; Agosti Xaho zuberotar pentsalari, idazle erromantikoa, nafarzale eta askatasunzale amorratua; Santa Kruz gerrilari sonatua; Fortunato Agirre jeltzalea, Lizarrako alkatea; Gloria Rekarte, ETAko kidea. Zerk lotzen ditu guztiak? Nafarroak lotzen ditu, herri honen askatasunaren alde egin nahi izana, era batera edo bestera, bitarteko batzuekin edo besteekin, bakoitza bere garaiaren seme-alaba baita. Haiek dira gure herriaren historiaren katearen begiak.

Borrokatu egin zuten, eutsi, aurre egin... Eta galdu. Kasu guztietan galdu. Hori ere badute komunean zazpi pertsonaiek, Nafarroak beti galdu baitu 1200. urtetik hona.

Liburuak Euskal Herriaren historia hobetoxeago ulertzeko tresna izan nahi du. Zazpi pasartetan antolatua, zazpi

garaitan banatua. Gauden tokiraino nola iritsi garen ulertzeko bidea erraztu nahi dio irakurle euskaldunari. Literatura historikoa du ardatz liburuak, baina errealitatea du oinarri, benetan gertatutako pasarte eta gertaera historikoak direlako liburuan nagusi.

Iragana ezagutzeak balio izaten du joandako garaietan egindako akats berak ez errepikatzeke. Balio beharko luke. Izan ere, gaur da eguna Nafarroak ez duena ez estrategia bateraturik ez proiekturik, herri bezala etorkizuneko subiranotasun planteamendu sinesgarri bat erdiesteko. Unión del Pueblo Navarroren integrismo-espainiarzalea zati batean nagusi, sabinismo jeltzale bizkaitarzalea bestean, frantziar jakobinismo berdinzalea bestean. Imanaren kontrako efektua eragiten dute batzuen eta besteen politikek zatikatuturik dagoen herriaren nahieta.

Dudarik gabe, Nafarroaren azken 100 urteko historian aranistotik eratorritako abertzaletasunaren eragina funtsezkoa izan da. Bizkaitik abiatu zuten egitasmo politikoa, adar batetik, enborretik beharrean, eta horrek eragin itzela izan du zuhaitzaren egonezin etengabe.

Baina Bizkaitik abiatutako egitasmo politikoak Nafarroa Garaian egiten du tope. Nortasun politiko-historiko handien duen herrialdean, hain zuzen ere. Egun, zaila da abertzaletasunaren norabidea aldatzea, historiari pisua baitu onera eta txarrerako. Baina, derrigorrezkoa da, subiranotasuna berreskeratu nahi duen herri batek irabazteko aukera emango dizkioten formulak bilatu behar dituelako. Orain arteko joera abertzale guztien imajinario kolektiboaren formulak galtzera daramate subiranotasuna berreskuratzea helburu duen egitasmo politikoa.



Hala ere, urrutitxo gaude egoera horretatik. Espainiarekiko beste hitzarmen bat bilatzen ari dira Nafarroako mendebaldeko instituzioetan nagusi diren indar politikoak, iraganean hartutako joerari eutsiz. Menpekotasun hitzarmen bat izango da, izatekotan. Izan ere, Nafarroa osatzen duten herrialde ezberdinek sekula ez dute Espainiarekin berdinetik berdinerako hitzarmen politikorik egin. Arrazoi sinple batengatik, herrialde menperatuak direlako eta subiranotasunik ez dutelako Nafarroak

“liburuak Euskal Herriaren historia hobetoxeago ulertzeko tresna izan nahi du”

diote, Nafarroa ekialdeko herrialdeei buruz. Baina historiak erakutsi du, behin eta berriro, hori amu bat besterik ez dela hitzarmen zatikatzaileak egiteko.

Bestalde, “baskongadisten inbasioaren” mamu sinesteziinak botoak eta gogoak batzen ditu Nafarroa ekialdeko eremu erdaldunetan. Nafarroaren berezko

independentzia politikoa galdu zuenez geroztik.

“Etorriko dira gero besteak”,

nortasunean mozorrotuta erabiltzen du erregionalismoak argudio espainiarzale menperatzailea: konkistatua eta zapaldua dena, konkistatzaile eta zapaltzaile gisa salduz.

Argudioak baliq die, Nafarroaren subiranotasunaren alde lan egiteko prest dauden indar sozial, politiko eta ekonomiko guztiek orain arte egindako akatsak zuzentzen ez dituzten bitartean; Nafarroaren ikurra, izaera eta nahia, Euskal Herri osoan lau haizetara zabaltzera ausartzen ez diren bitartean; zatitzen gaituen egoerari hegalak mozturik, menperatzailearen argudio nagusiak baliogabetzeko urrats eraginkorrak ematen ez dituzten bitartean. Salduta, zatikatuta, eta galtzaile jarraituko dugu, konkistatzaileak propio egokitutako joko-zelaian gure burua aurkitu gabe. Gure etxea berreraiki gabe, amaren sua gero eta ahulago, gero eta txikiago eta baztertuago. 1200. urteik gure historiaren Katearen begiak osatzen dutenak bezalako pertsonaia ugari ematen jarraituko dugu: zapalkuntzaz jakitun, hari aurre egiteko lur emankorra aurkitu ezinean, galtzaile behin eta berriro, etsai indartsuago baten aurrean. Makurtu gabe, baina irabazi gabe. Herri honi indarrez lapurtu ziotena berreskuratzeko ezgai.

(haria-6)

© iñaki petxarroman, nabarralde, geu aldizkaria

Oharra: urtarrileko aleko artikulua Erlantz Urtasun historiagileak Haria aldizkariako 5. alerako gazteleraz idatzi artikuluaeren itzulpena zen.

ITYRRIETA

 Sagardotegia
 Arraga auzoa.
 Tfnoa: 945 44 53 85 - ARAMAIO

OSTIRALETIK
 IGANDERA IREKITA.
 ASTEAN ZECHAR
 ENKARGUEN BIDEZ.
 ASTEBURUETAN:
 HAMAIKETAKOAK ETA MERIENDAK

IRYSTA TABERNA
 poteo eta pintxoak
 Mateo Moraza 19
 Tfnoa: 945 23 19 33 GASTEIZ
ESPEZIALITATEA:
 Patata tortila • Otartekoak

Bai esan?
 * Cursos de 5, 3 y 2 horas
 * Todos los horarios y niveles
 * EGA 2 días a la semana
 * Euskara básico para inmigrantes

GASTEIZ:
 Arana, 30 945 25 24 00
 Mardones, 8 945 26 35 40
 Peru, 8 945 21 75 08
LAUDIO: 94 672 67 22
AGURAIN: 945 30 04 08
AMURRIO: 945 89 23 34

æek
 www.aeknet.net
 Izena emateko epea: otsailaren 6ra arte

KATIXA AGIRRE, "KAPELA BERDEA PIANOAREN GAINEAN"

Poesia idazten duen lehen aldia izanik, euskarazko modalitatean Ernestina de Champourcin lehiaketa irabazi du Katixa Agirre, 22 urteko gasteiztarrek. Honetaz gain, ondo hasi dugu gazteak urte berria, izan ere, Gasteizko Udala & Canekoak-ek urtero antolatzen duten ipuin laburren lehiaketan hirugarren geratu da eta, "Stormy Weather" izeneko lanarekin.

Zalantzarik ez Katixa hitzekin ondo moldatzen dela. Koldo Mitxelena institutua amaitu, Leioako EHU Un Ikus-entzunezko komunikazioko karrera egin eta egun gidoilaritza ikasten ari da Madrilen. Katixak gogora ekartzen du bere lehen lehiaketa: "Institutan negoen, bigarren mailan edo, bertan antolatzen zen lehiaketara aurkeztu eta lehenengo saria eskuratu nuen, 5.000 pezeta Zuloan gastatzeko, alegia". Orduetik, betidanik egin izan duela dioela ere, ez dio utzi idazteari. "Sari bat ez da dirua bakarrik, baizik eta egin duzun lanagatik jasotako esker ona eta gainera beti ematen dizkizud animoak idazten jarraitzeko".

Aurten izan da Ernestina de Champourcin lehiaketara aurkeztu den lehenengo aldia. Berak aitortzen duenez, "urtero Udalak antolatu ipuin laburren lehiaketara aurkezten naiz eta badira bost urte saridunen artean gelditzen naizela. Poesia aldiz, ez dut sekula idatzi aurten arte". Lehiaketak ezarritako baldintza bakarra 500 eta 1.000 bertso artean idaztea zen eta Katixak dioenez, "ateratzen zitzaidana idazten nuen, ez neukan limitaziorik eta askoz espontaneagoa izan da".

Gazteak idatziriko bertsoak honako ataletan banatzen dira: literaturari buruzko gogoeta, Gasteizi dedikaturikoa -"orain hemen ez naizenez bizi faltan botatzen dudalako"- dio, Londonen Erasmus beka batekin eman zuen urte hura ere

gogora ekarri du Katixak, jendeari buruz diharduena, eta azkenik, denborari buruzko bertsoak ere aurki daitezke bertan. "Bertsoak idazten hasi nintzenean ez nengoen zentratuta lehiaketan. Egunero idazten joan eta gutxi gora-behera uda guztia eman dut idazten, iraila bitartera".

Zazpi lagun besterik ez ziren aurkeztu Ernestina de Champourcinera. Katixak euskaraz idaztea gustukoa duen arren, onartzen du euskaraz idatziz gero aukera gehiago dituzula. "Ez dakit zergatik baina euskaraz idazten duen jende nahikoa badago ere, gero lehiaketetara aurkezten direnak beti berdinak dira", azpimarratu du.

KAPELA BERDEA PIANOAREN GAINEAN (7 atal dira; 4 aurkezten dizkizuegu)

Zuretzat

Ez naiz ni izango ispilu hau zergatik hartu beharko zenuke esango dizueña,
Nik daukadana badakizu.
Edalontzi bat,
kapela berdea piano baten gainean
zientzia fikziozko filma
bi liburu (bata bestea baino lodiagoa)

eta hirurogeita hamar mila hitz
harrokeriaz desordenaturik.
Gustukoak badituzu
zuretzat guztiak.

Bat-bateko poesia

Harrigarria da gure hizkuntzak darabilen
sinonimo makina.
Bat-batean esateko, adibidez,
esan dezakegu ere:
tupustean
derrepentean
itsumustuan
ustekabea
mementoan
ziplo.

Baina berdin da zein erabiltzen dugun.
Nik esan nahi dudana zera da:
Zu bat-batean (edo tupustean) agertu zarela
zure bat-bateko (edo itsumustuko) musikarekin
eta ni bat-batean (edo derrepentean) gaixotu naizela
nire bat-bateko (edo ustekabe) maitasun pozaz.

Poesia agnostikoa

Jakin-minak, batzuetan
(abuztuko ordu txikitari, adibidez)
oxigenoaren premiari ito egiten nau.
Dena jakin nahi dut
unibertsoa eta bere muga urdinak
bi beso luze
eta begirada bizi batekin
antzeman ahalko balitza bezala.
Beste batzuetan, ordea,
hain nago pozik hemen,
ezjakintasun bortitzaren gunean;
zeru lainotuta buru gainean
eta are zorua sandalietan azpian,
ezen eskerrak ematen dizkiodala
nire arbaso ezagun eta ezezagunei
ezer ere ez dakidalako,
eta ezer ere jakin ez dudalako nahi.

Post-modernismoa

Baudrillard-ek etorkizunik ez dagoela
aldarrikatu duenerako
eta Eco-k hala dela berretsi duenean
etsipenez beterik,
jende multzoa bildu da
Picadilly Circus-en.
Haiek ere zerbait aldarrikatu nahi dute:
Frantziarrek poesia idazten jarraitu beharko zuketela
(eta ez gaur eguneko simulakroa)
italiarrek kafe ona prestatzen jarraitu beharko zuketela
(eta ez gaur eguneko simulakroa)
Eta zerbait globalizatu beharko balitz
hori izan beharko zela hain zuzen ere:
poesia eta kafea.

Eta pankartaz bete da enparantza borobila.



Ernestina de Champourcin

- Gasteizen jaioa, 1.905eko uztailearen 1ean.
- Aurreneko literatura saioak, frantsesez idatzitako ipuinak, 12 urte zituela.
- 1.926.ean argitaratu zuen lehen poesia liburua, "En silencio".
- 1.936. urtean Juan Jose Domechina 27ko Belaunaldiko poetarekin ezkondu zen.
- Errepublikarrak izanik Gerra Zibila bukatu zenean biek alde egin behar izan zuten, Mexikora joan zirela.
- Ernestina 1.979. urtean bueltatu zen Madrilera (Domechina 1.952 urtean hil zen bihotzekoak emanda Mexikon).
- 1.990ean eratu zen Gasteizen bere izeneko poesia lehiaketa.
- Argitaraturiko lan inportanteenak: "Ahora", "La voz en el viento", "Presencia a oscuras", "El nombre que me diste", "Cárcel de los sentidos", "Cartas cerradas", "Poemas del ser y del estar", "Primer exilio", "La pared transparente", "Huyeron todas las islas" eta "Antología poética".
- Gasteizen hil zen 1.999ko martxoaren 27an.

(iturria: "Emakumeak Vitoria-Gasteizen mendeetan zehar")

Gasteizko Ipuin eta Kontakizun laburren X. Lehiaketa. Saridunak euskarazko modalitatean:

- 14-18 urte bitartekoen multzoan:
 1. saria: Maialen Monte Lpz. de Ondategi. "Amodio bakartia kontatzen dizut"
 2. saria: María Orcasitas. "Lehen lekukoaren testigantza"
 3. saria: Nagore de la Torre Vazquez. "Itzaropena"
- 19-25 urte bitartekoen multzoan:
 1. saria: Kepa Blazquez. "Ametsak amets"
 2. saria: Miren Ibarluze. "Erakusleihan"
 3. saria: **Katixa Agirre. "Stormy Weather"**
Aipamen berezia: Maider Etxegarai. "Trenbide zahar, itsaso zabal"



GASTEIZ - BILBO - MEXIKO



testua eta argazkiak: xabier errasti, 'jerras'

itzulpena: geu

Mexikorako bidean, egun jatetxea eta gaueko taberna den antzoki ohi bat topatu dut.

Hegazkinaren zain nagoenez, gaur ez dut lorik hartuko, eta jakin badakit datozen bizpahiru egunetan nire arima harat-honat ibiliko dela, nigandik at, hiriburuetako hiriburura heldu eta leku arrotzen batean galdutako ene gorputzak berau jaso artean. Zokaloan, barazki azoka batean, ile beltzeko eta begi sakoneko atso ñimiño batekin hizketan aritzen naizen bitartean, edota agian, ziurrenik, "izpi berdeak" zeruertza zatitzen duen unean eta eguzkiak ziztu bizian munduaren beste zatia argitzera ihes egiten duenean.

Gune zabala da, adreilu grisez egindako harresiak ditu, eta purpura koloreko kupula batek estaltzen du. Bertatik geure buruen gainean dagoen espazioa jasotzen duten lau orbita eskegita daude. Hormetan irudi beltz eta lirinak daude. Manu Chao entzuten dut, bidaiatzen dudana bakoitzean bezalaxe, horregatik "le llaman el desaparecido...": Tibet-en, Aayoun-erako bidean, Pireoan...

Taxian sartzeko gogoa daukat, nire begiek errepidearen marra zuzena bat-batean xurgatu eta aurrera begiratzerakoan etxe nahasiez betetako eta zeru beltzera kea jaurtitzen duten kotxe zaratsuen errealitatea ezagutzeko gogoa daukat, taxistaren aurpegia eta atzerako ispilutik zintzilikatutako panpinak ikusteko gogoa, leihatila irekitzeko gogoa eta irratia jar dezala eskatzeko gogoa.

Gazteak lasaitu egin dira, D. Deseo-k iradokitzen die. Une katartikoa

izan da, guztiak, elkar ezagutu barik, lau pertsonentzako mahaira hurbilduz joan direnean. Loreak saltzen dituen txinatarrak diadema bat darara buruan; zerbaitek distira egiten du, dir-dir egiten du. Nire boligrafoa ziztuan doan obturadore baten abiaduraz erretratuak ateratzen dituen argazki kamera baten moduan dabil. Haurdun dago. Palkoan jendeak dantza egiten du. Laurak dira gero!!

Eta Bilboko taxistak? Aierportura eramateko garaia da. Hemen beste bidai bat hasiko da, bidaiak darrai...

- Musikarik jar dezakezu? Irratia ba al dabil?

Marrazoa, marrazoa

Gomendatu zidaten modura, aireportuan dagoen taxien bulegoaz galdetu nuen, kutxazainetik peso batzuk atera nituen eta nire kontaktua etxean zegoela konprobatu ostean, taxia hartu eta aurreko leihatila ireki nuen. Fresko sentitzen nintzen, begiak zabal-zabalik nituela eta haur bihurri baten irribarrearekin. Hirigunera doan 60 km inguruko hiribide handia hartu genuen, auto-ilara eta kamioi handien artean, kolore eta garaiera desberdinetako etxean artean, hodei lodietako zeru eta ilunabarreko argi artean.

- Colonia Roma, Insurgentes glorieta, Puebla 213

Harrera, afariak, itzultzen zen lagun bat agurtzea, Coyoacan bisitatzea, Celia Cruz ala Compay?, gauez atera eta egunez lo egin, trabestien tabernak, plaza bat mariachiekin,...

Astebete bizia izan zen, oso bizia, etxean bezala sentitu nintzen, lagunekin hizketan, hiria goitik behera zeharkatu nuen, metroan, peseroan; jendeak kalean ogia nola irabazten zuen ikusi nuen, peso peso, tamaleak saltzeko postuarekin, "cidiak" edo Hulk Harrigarriaren panpinak salduz, semaforoetan kristalak garbituz, espaloietan eskatuz, azoketan gogor lan eginez, nonahi musika dagoela.

Bertakoari so!



ERLANTZ

URTASUNen txokoa

ARABAKO KONKISTA

Hainbatetan bertzelakorik zabaldu bada ere, 1200. urtean Arabak ez zuen bat egin Gaztelarekin. Egun deitzen ohi dugun "Araba" Nafarroaren baitan zegoen antolaturik, eta bere lurrak, ibarrak, lautadak, mendialdeak nafar eskualde batzuk ziren. Aipatu urte inguruan, halere, gaztelarrek militarki inbaditu zituzten nafar lurralde hauek, arabarron gogoa bortxaz menperatuz.

Mugak hautsi eta 1199ko ekainaren 5ean gaztelarrek Gasteiz setiatu zuten. Horrela, inbasoreek ekidin zuten gure arbasoek uzta jasotzea. Urte erdia igaro ondoren, soldadu anitz hila, goseak hiriko jende xumea sarraskiturik, Garazitik helduriko "Martin Chipia" nafar militarren gidaritzapean itxaropenik gabeko hil arteko erresistentzia indarrean zegoen oraindik. 1200eko urtarrilaren amaieran Antso Azkarra erregeak baimena eman zien gasteiztarrei amore emateko.

Tartean gaztelarrek egungo arabar lurrak tikitu zituzten: soroak nahiz basoak erre, gazteluak birrindu, herrietan lapurreta handiak burutu, ... Martin Ruiz nafar buruzagia Buradon eta Portillako harresiak defendatzen hil zen. Uda-Trebiñuk denbora luzaz eutsi zion, eta horregatik, zigorraren gisa, Burgosko jaurerria da. Arabar Errioxak zorte hobea ukan eta 1462 arte nafar euskaldeen gisa iraun zuen. "Voluntaria Entrega"? Bai, zera!

Zergatik maite zuten arabarrek nafar izaitea? Horren uler dezagun, Antso Jakitunak emaniko Gasteizko forua, hiriko legeak biziki laguntzen ahal digu. Martxoan azalduko duguna, alegia. Ordura arte, irakurle.

DIOCESANAS-MENDIZORROTZAKO OSTALARITZA ESKOLA



FRUTAK IZOZKI ETA PISTATXA KARMELUAZ

OSAGAIAK

Frutak:

- Madari-sorta ardo beltzatan.
- Muxika-sorta almibarrean.
- Kiwia xerretan.
- Marrubi erdiak.
- Meloi bolak.
- Anana hirukietan.
- Mugurdiak edo andere-mahatsak.

Izozkia:

- Nahi den izozki bola bat.

Mugurdi saltsa:

- 100 g mugurdi jelatu.

• 25 g azukre.
Minutu batez egosi, txikitu eta txanotik pasa. Hozten utzi.

Pistatxa karmelua:

50 g azukrek kolore horia hartzen utzi (flanerako karmelua egingo bagenu bezala). Zabaldu eta gainetik pistatxa zatitxoak bota. Paper gainean hoztu, zatitu apajntzeko.

PLATERAREN PRESTAKETA:

Plateraren inguruan, erdialdea libre utziz, frutak kokatu (ebaketa desberdinetan eta kolore desberdinak uztartuz).

Plateraren erdialdean, mugurdi saltsa zabaldu eta gainean izozki bola kokatu; karmelua orriekin apaindu.

Amaitzeko, menda hostoekin platera apaindu.



(itzulpena: geu)

Udaberria
euskaltegia

- Euskaltegi Homologatua
- Musika eskola
- Helduentzat
- Danza
- Ume eta gaztekoentzat

Uruguai kalea, 9 - Tfnoa: 945 24 49 65
Abendaño kalea 48 - Tfnoa: 945 22 34 33

Confecciones
Pinedo
JANTZIAK

San Antonio kalea, 11 • GASTEIZ
Tfnoa.: 945 23 39 90

EYSKAL LABELA
LASAGABASTER
harategia eta urdaitegia
Gasteizko
haragitegirik zaharrena
Errege atea, 24
Tfnoa: 945 25 56 90 Gasteiz

ARTEPAN
Artisau
Okindegia eta
Goxotegia
Jesús Guridi kalea, 2
Tfnoak: 945 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ

ZURE HARATEGIAK

Jose Luis
GARMENDIA
HARATEGIA-URDAITEGIA
Andaluzia kalea 13
☎ 945 28 79 42 • GASTEIZ

XABIER
AIZPEOLEA HARATEGIA

FLORIDA AZOKA 2 eta 3
☎ 945 13 24 48
ABASTOS AZOKA 2 eta 3
☎ 945 26 78 97

gure lurraldeko haragi samurretan espezialduak

PLATER MIMATUAK...
EZ ZAITEZ GERA GURE KARTA
ETA MENU BEREZIA DASTATU GABE!!!

Jaletxea - Taberna
"EL CLARETE"

Unai eta Patsi Fernandez de Retana
Zerkabarren kalea, 18 • GASTEIZ
Telefona: 945 26 38 74

E4
eusko
alkartasuna
www.ea-euskadi.com

arabarrok euskarari BAI
www.euskoalkartasuna.org

GA
gazte
abertzaleak
www.gazteabertzaleak.com

MIKO
Izozkiak

KIDS

APAINDURA
Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ

32

testua & argazkiak: maite mendiburu

GEUREKIN MENDIRA

Mendian gora modu askotara joan daiteke... Atxagak idatzia da. Eta egia da. Poliki edo arin joan daiteke mendian gora. Esku hutsik edo makilekin. Sokatik zintzilik ere bai. Saldo handitan edo lagunarte txikian. Bakarrik ere bai. Joan daiteke hizketan, isilik joan daiteke...

1995eko otsailaren 15ean, igandearekin, abiatu zen taldetxo bat Gasteizko Andre Maria Zuriaren plazatik, oinez, mendi aldera. Batzuk arin abiatu ziren, besteak lasaiago: Esku hutsik gehienak, inork ez zeraman sokarik. Taldetxoan, zenbat ziren gogoratzen ez dugula, elkar ezagutzen zuten batzuek, besteek ez, baina laster ez zen inor bakarrik. Isilago zenbait, ezin isilduak besteak. Eskibeheko mendi tontortxoan norbaitek azaldu zuen polita zitekeela euskaraz jardungo zueen mendi taldetxo bat sortzea Gasteizen. Helburu apaleko mendi taldea, alegia, baina gure hizkuntzari dagokionez, zintzoa. Mendia maite, baina baita euskara ikasi, edo bizi nahi zutenentzako eremu babestua ere, ezaguna. Gasteiz handi honetan galtzen baita euskalduna, eta ongi datorkiolako jakitea *non* eta *norekin*, ez bakarrik *nor-nori-nork*.

Hilabete bat geroago, martxoaren 19an, hogeita hamar ibiltarik ekin zioten hurrengo txangoari: Zaldiaran,

Busto eta San Migel tontortxoak zapaldu zituzten. Honela batzuk, *non* eta *norekin*:

- Zu hemen?
- Bai ni aspaldi ikasten naiz euskara baina ni ez hitx egin iñoiz.
- Ez da egia, nork.pentsatuko! Ba, egin orain nahi duzun guztia, horrela ikasten da ta.
- Bale, baña ni bakarrik hitx egin aldapa behera, ze asko asko nekatuta nago.

Kutxidazu bidea Ixabel-ka batzuek, beraz, baina bestelakoak ere baziren, bidea aurretik erakutsita. Honetaz eta hartaz aritu ziren, beheko lautadaz eta goiko zeruaz, futbolaz, lanaz edo Dalai Lamaz. Hori bai, denak euskaraz. Eta ttipi-ttapa.

Horrela sortu zen *Geurekin mendira* deitutako taldea, eta hala irauten du gaurdaino GEU elkartearen barnean. Laster hamargarren urtea.

80 irteera egin dira Euskal Herriko mendietara, goizeko irtenaldiak, edo egun osokoak. Hilabetean behin. Irteera bereziak ere, bestalde: hiru eguneko hura, Lapurdia (Iparla eta inguruak), eta Euskaraz Bizi eta Bagare taldeekin antolatutakoak (8-9). Zazpi-zortzi pertsonak jarduten dute antolakuntzan, egutegia eta ibilaldiak prestatzeko.

Mendi apalak eta handiagokoak tartekatzen ditugu. Ibiltze erritmoari dagokionez, kontuan hartzen da datozenen maila, egokitu beharra dago. Era askotako jendea gara baina guztiok mendian gozaten dugu eta giro polita sortu ohi da gure artean. Euria ez dugu gehiegi maite itxuraz, euri egunetan multzoa biziki murrizten baita. Talde irekia da gurea, adin guztietako euskaldun berri, berritu, higatu eta zaharkituentzat aproposa, eta benetan, beti gogoz hartzen dugu jende berria etortzea. Proposamen diferenteak ere ongi etorriak lirateke.

Mendian gora modu askotara joan daiteke, bai. Eta dagoeneko, antzeman duzue gutxi gora-behera nola goazen gu. Gustukoa baduzue, zatozte...gu kontent. Ea ba, laster arte!



DATORREN IRTEERA

OTSAILAREN 15ean
BADAIAN, OTEROS
(1038 m.)

ARDURADUNA: IÑAKI (945146296)
IRTEERA: LOVAINA PLAZAN,
9.00ETAN

geuelkarteak@grn.es

geu elkartea. eskaintza

Otsailaren 25a, asteazkena
Rikardo Arregi, Kartografia, Alberdania 1998.
 Idazlea bertan izango da

- **Martxoaren 31a, asteazkena**
Isaac Bashevis Singer, *Zortzi kontakizun*, Elkar-Alberdania 2002.
- **Apirilaren 21a, asteazkena**
Jokin Muñoz, *Bizia lo*, Alberdania 2003.
- **Maiatzaren 26a, asteazkena**
Bernardo Atxaga, *Soinujolearen semea*, Pamiela 2003.
- **Ekainaren 30a, asteazkena**
Arantza Iturbe, *Lehenago zen berandu*, Alberdania 1995.

LIBURUAK ESKURAGAI GEU ELKARTEAN

Eskaera egiteko:
 - Elkartera deitu: 945222153 (arratsaldez, Josune) edo e-maillez: geuelkartea@grn.es
 Informazio gehiagorako, Geu elkarteko koordinatzailearekin harremanetan jarri, arratsaldez (Josune).



GASTEIZKO IRAKURLE KLUBA

Geu elkartearen ekimenez

HIKATENEO-N ARRATSALDEKO 20.00ETAN

IRAKURLE KLUBA & ZAPATENEO

Irakurke Klúbeko liburuak ZAPateneo Kultur Elkartean ere izango dituzue (eta hileko liburuak prezio berezian eskuratu ahalko da).

Zapa Kalea, 95, behea. Asteartetik ostiralera, 18:30etatik 21:00etara eta Larunbatetan, 11:30etatik 13:30etara. Tfnoa. 945149379.
 e-maila: zapateneo@euskalerrria.org

• KULTUR ERROTA.

Biraka dabilen harria, sorkuntzan ari den herria

Otsailak 24 (asteartea)

MATXINEN

"NI IZANGO NAIZ THE NUMBER 1" EMANALDIA

Parral-en, 20.30etan



NI IZANGO NAIZ THE NUMBER 1

MINTZALAGUNA Ostegunero 'Falerina', Montehermosoko kafetegian, 7etatik aurrera.
 Lehenago elkartera deitu beharra dago izena emateko (945222153, arratsaldez. Josune).

EZ OHIKOAK (ikus. agenda: 24.orr.)

MAITASUN MEZUAK SMS BIDEZ

EPEA: Otsailaren 14an

GEU ELKARTEAREN KONTSEILU

TALDEAREN BILERA

EGUNA: Otsailaren 9an

KANGEUROAK

Zerrenda honetan agertu nahiez gero eman zure izena eta telefonoa eta zehaztu zure ordutegia: 945222153 / geugaste@grn.es

- **Goizez**
Ilune. 945010322
- **Arratsaldez**
Patxi. 652743205
- **Gauetz**
Nerea. 658733934
- **Asteburuak**
Nagore. 945281124
Marta. 606415235
- **Gau batez** (afariak, ezkontzak,...)
Miryam. 656761588

IRAGARKITXOA

Lagun bat behar dugu goizeko zazpietatik hamaikak arte ume bat zaintzeko. Tfnoa: 945 17 81 87 (Oskar)

Garagardotegia

Ostiral arratsaldez,
 Asteburuero
 Iratzen eta
IREKITA
 egutegian
IREKITA

La Blanca

- * Oilasko erreak
- * Kazolatxoak

Tfnoa. 945 27 90 46
 Herrandarren kalea, 82
 Gasteiz

EL BAR Kutxi

eguneko menua

LA RIOJANA
 jatetxea

on egin!

bokatak,
 pintxoak,
 kazulatxoak

Aiztozile kalea (Kurxi), 33 Tfnoa. 945 25 02 39

DIBUtec
 Paper Berezikiak
 Arte Ederretarako Materialak
 Ink-jet er-joinak eta birzikletuak
 Bulego Materialak
 Enkoadernatzaileak
 Plastifikatzaileak
 Kamaketen Entzupaketak
 Koppik

azkarprint
 Inprimaria / Inprimategi
 Edozein inprimaketara

• PAPERTEGI TEKNIKOA • Landazuri, 7 - 945 23 30 01 - GASTEIZ • INPRIMATEGIA •

Zure denda erotikoa

SEX

Sexua euskaraz bizi

PITILIN GORRI

GASTEIZ
 Tren geltokiaren ondoan
 Tel: 945 15 42 60

DONOSTIA
 OIARTZUN



ES-ARASOLA

JESUS OBRERO
JESUS OBRERO
INSTITUTU POLITEKNIKOA

**EGIZU MATRIKULA GUREKIN
 ETA JAR EZAZU MARTXAN ZURE**

KIROL ESKOLAK

- ESKUBALOIA
- SASKIBALOIA
- ARETO FUTBOLA
- BOLEIBOLA
- GIM. ERRITMIKOA
- ESKU PILOTA
- MAHAI TENISA
- XAKEA
- HOCKEY
- ATLETISMOA
- FUTBOLA

DBH

A, B ETA D EREDUAK

ESO

LANBIDE HASTAPENA

MEKANIZAZIOA
 ELEKTRIZITATEA

BATXILERGOA

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA
 GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK
 EUSKERAZ
 GAZTELERAZ

NOLA GAUZATZEN DUGU EGITASMOA?

- ✔ Banan banako arreta eta tutoretza norabidatzea.
- ✔ Ikaste prozesuaren etengabeko ebaluaketa
- ✔ Aniztasunarekiko arreta eta geletan indartze-beurien aplikazioa.
- ✔ Ikasleak duen ahalmen eta jarrerari zuzendutako hezkuntza-eskaintza.
- ✔ Prebentzioa eta osasunerako heziketa.
- ✔ Elkartasunarekiko heziketa.
- ✔ Inguruan sustraituriko heziketa

- ✔ Orientabiderako azterketa psikoteknikoak.
- ✔ Ikasteko tekniken aplikazioa.
- ✔ Orientabide saila.

ZIKLOA

13 AUKERA DESBERDIN
 EUSKERAZ
 GAZTELERAZ

**E
T
O
R
K
I
Z
U
N
H
A
N
D
I
K
O
P
R
O
I
E
K
T
U
A**



ATE IREKIKO EGUNAK
 Asteartero: Urtarrilak 20-27
 Otsallak 3-10
 Ordua: 18:00